ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO DE LA VIVIENDA

# EAE-KO ETXEBIZITZA POLITIKAREN EBALUAZIOA: ETXEBIZITZAREN BIZTANLE ESLEIPENDUNEN INKESTA 2013



**2013ko ekaina.**

Servicio de Estudios, Planificación y Presupuestos
Azterlan,Plangintza eta Aurrekontuen Zerbitzua

Donostia – San Sebastián, 1 – Tef. 945 01 98 71 – Fax 945 01 98 55 – 01010 Vitoria-Gasteiz

ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO DE LA VIVIENDA

**AURKIBIDEA**


**1. SARRERA ........................................................ 7**

**2. ETXEBIZITZA BABESTUAREN ERAIKUNTZA EAE-N ........................ 9**

**3. INKESTAN PARTE HARTU DUTEN BIZTANLE ESLEIPENDUNEN GIZARTE ETA BIZITEGI EZAUGARRIEN ADIERAZLEAK ........................ 10**

3.1. Esleitutako etxebizitzaren titularraren karakterizazioa ........ 10
3.2. Karakterizazio ekonomikoa ........ 14
3.3. Esleitutako etxebizitzen ezaugarriak ........ 18

**4. ETXEBIZITZAREN BEHARRARI EMANDAKO ERANTZUNAREN ETA ETXEBIZITZAREKIKO ASETASUNAREN ADIERAZLEAK ........................ 21**

4.1. Beharraren estalduraren adierazleak ........ 21
4.2. Etxebizitzarekiko eta etxebizitzaren hainbat alderdiekiko asetasun orokorra ........ 23
4.2.1. Etxebizitzarekiko asetasun orokorra ........ 23
4.2.2. Alokairuko etxebizitza baten esleipenaren balorazioa ........ 25
4.2.3. Etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko asetasuna ........ 26
4.3. Esleitutako etxebizitzetan izandako arazoak edo gorabeherak eta horien konponbidea ........ 32

**5. ETXEBIDEREN ETA ETXEBIZITZA BABESTUEN ESLEIPEN-PROZESUAREN BALORAZIOAREN ADIERAZLEAK ........................ 35**

5.1. Etxebideren balorazio orokorra ........ 35
5.2. Esleipen-prozesuaren balorazioa ........ 36
5.2.1. Esleipen-prozesuaren balorazio orokorra ........ 36
5.2.2. 37
5.2.3. Esleipen-prozesuaren hainbat alderdiekiko asetasuna ........ 38

**6. ETXEBIZITZA POLITIKA BALORATZEKO ADIERAZLEAK ........................ 40**

6.1. Etxebizitza-politikaren neurri garrantzitsuen balorazioa ........ 40
6.2. Eusko Jaurlaritzak eta Udalek etxebizitzaren alorrean burutzen duten lanaren balorazio orokorra 44

**7. ADIERAZLEEN ANALISIA GENEROAREN IKUSPEGITIK ........................ 47**

7.1. Biztanle esleipendunen karakterizazioa ........ 47
7.2. Etxebizitzaren beharrari emandako erantzuna eta etxebizitzarekiko asetasuna ........ 49
7.3. Etxebideren eta esleipen-prozesuaren balorazioa ........ 54
7.4. Etxebizitza-politikaren balorazioa ........ 55

**8. ONDORIOAK ESLEIPEN PROZESUAREN ETA ESLEITUTAKO ETXEBIZITZEN EBALUAZIOA PERTSONA ESLEIPENDUNEN IKUSPEGITIK ........................ 57**

**9. HOBETZEKO GOMENDIOAK ........................ 62**

ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO DE LA VIVIENDA

## TAULEN AURKIBIDEA


1.1. taula EAEko etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkestako laginaren banaketa ........ 7
2.1. taula EAEn eraikitzen amaitutako etxebizitza babestuen bilakaera lurralde historikoka eta edukitza-erregimenaren arabera, 1982-2012 ........ 9
3.1. taula Etxebizitzaren biztanle esleipendunen egungo gizarte- eta bizitegi-ezaugarri nagusiak, 2013 ........ 10
3.2. taula Etxebizitzaren biztanle esleipendunen familia-unitatearen gizarte- eta bizitegi-ezaugarri nagusiak, 2013 ........ 13
3.3. taula Sendigunearen hileko diru-sarrera garbien maila etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 14
3.4. taula Esleitutako etxebizitza babestuaren ordainketari aurre egiteko zailtasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 15
3.5. taula Erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzaren balorazioa ........ 16
3.6. taula Alokairuan esleitutako etxebizitza erosteagatiko interesa ........ 17
3.7. taula Esleitutako etxebizitzen tamaina, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 18
3.8. taula Esleitutako etxebizitzen logela kopurua, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 19
3.9. taula Esleitutako etxebizitzen ekipamendua, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 20
4.1. taula Alokairuan esleitutako etxebizitzak epe ertainerako (5-10 urte) beharra estaltzen duelako pertzepzioa etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 22
4.2. taula Etxebizitza babestua trukatzeko poltsaren ezaguera ........ 23
4.3. taula Etxebizitzarekiko asetasun-maila etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 23
4.4. taula Etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioaren balorazioa etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 24
4.5. taula Alokairuko etxebizitza baten esleipenarekiko asetasuna ........ 25
4.6. taula Esleitutako etxebizitzaren tamainarekiko eta banaketarekiko asetasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 27
4.7. taula Esleitutako etxebizitzaren kalitatearekiko eta ekipamenduarekiko asetasuna, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 28
4.8. taula Esleitutako etxebizitzaren eraikinarekiko asetasuna, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 29
4.9. taula Inguruarekiko asetasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 30
4.10. taula Etxebizitzaren hainbat alderdiekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 31
4.11. taula Esleitutako etxebizitzan antzemandako arazo mota ........ 32
4.12. taula Etxebizitzan antzemandako gorabeherari edo arazoari emandako konponbidea edukitza-erregimenaren arabera ........ 33
5.1. taula Biztanle esleipendunen Etxebideren balorazio orokorra etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 35
5.2. taula Esleipen-prozesuaren balorazioa, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 36
5.3. taula Esleipen-prozesuak nahikoa argiak eta gardenak direlarekiko adostasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 37
5.4. taula Esleipen-prozesuaren hainbat alderdiekiko asetasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 38
6.1. taula Etxebizitza babestu gehiena alokairuan eraikitzeko neurriarekiko adostasun-maila etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ........ 40

6.2. taula Etxebizitza babestuen prezioak/alokairuak diru-sarreretara egokitzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 41
6.3. taula Alokairuaren baldintzak diru-sarreren bilakaeraren arabera aldiro berrikusteko neurriarekiko batez besteko adostasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 42
6.4. taula Etxebizitza babestuaren ikuskaritza egiteko neurriarekiko adostasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 42
6.5. taula Familien Gehiegizko Zorpetzea Laguntzeko Zerbitzuari buruzko ezaguera etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 43
6.6. taula Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean burutzen duen lanaren balorazio orokorra, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 44
6.7. taula Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren egoera hobetzeko lehenetsi beharreko alderdiak, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 45
6.8. taula Udalek etxebizitzaren alorrean burutzen duen lanaren balorazio orokorra, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 46
7.1. taula Biztanle esleipendunen ezaugarri sozioekonomikoak sexuaren arabera ... 48
7.2. taula Esleitutako etxebizitzen bizitegi-ezaugarriak sexuaren arabera ... 49
7.3. taula Beharraren estalduraren adierazleak sexuaren arabera ... 50
7.4. taula Esleitutako etxebizitzarekiko asetasun-maila sexuaren arabera ... 50
7.5. taula Etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioa sexuaren arabera ... 51
7.6. taula Erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzaren eta alokairuan esleitutako etxebizitzaren balorazioa sexuaren arabera ... 51
7.7. taula Etxebizitzaren hainbat alderdiren balorazioa sexuaren arabera ... 52
7.8. taula Etxebizitzako arazoak eta gorabeherak identifikatzea sexuaren arabera ... 53
7.9. taula Etxebideren balorazio orokorra sexuaren arabera ... 54
7.10. taula Esleipen-prozesuaren balorazioa sexuaren arabera ... 54
7.11. taula Etxebizitza-politikaren neurri garrantzitsuen balorazioa sexuaren arabera ... 55
7.12. taula Eusko Jaurlaritzak eta Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanaren balorazio orokorra eta etxebizitzaren egoera hobetzeko heldu beharreko alderdiak sexuaren arabera ... 56
8.1. taula Biztanleria esleipendunaren profila eta biztanleria eskatzailearen profila alderatzea ... 58
8.2. taula Biztanleria esleipendunaren eta biztanleria eskatzailearen balorazioen alderatzea ... 60
8.3. taula Etxebideren bitartez egiten den etxebizitza babestuaren esleipenari buruzko ebaluazioaren adierazleen laburpen-taula, 2007-2013 ... 61

ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO DE LA VIVIENDA

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA


2.1. grafikoa Eraikitzen amaitutako etxebizitza babestuen bilakaera lurralde historikoka eta edukitza-erregimenaren arabera (datu metatua), 1982-2012 ... 9
3.1. grafikoa Etxebizitza babestu baten pertsona esleipendunaren batez besteko adina, 2013 ... 11
3.2. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko erregimena nazionalitatearen arabera, 2013 ... 11
3.3. grafikoa Langabezian dagoen biztanleria esleipenduna, 2013 ... 12
3.4. grafikoa Etxebizitza babestu baten biztanle esleipendunek osatutako familien batez besteko tamaina, 2013 ... 13
3.5. grafikoa Etxebizitza babestu baten biztanle esleipendunen batez besteko diru-sarrerak lurralde historikoka eta edukitza-erregimenaren arabera, 2013 ... 14
3.6. grafikoa Esleitutako etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko gaur egungo zailtasuna lurralde historikoka eta edukitza-erregimenaren arabera ... 15
3.7. grafikoa Erosketa-erregimeneko etxebizitza babestuaren esleipendun izanik etxebizitzaren lurzorua erosteko interesa duten biztanleen proportzioa lurralde historikoka eta pertsona esleipendunaren adinaren arabera ... 16
3.8. grafikoa Erosteko aukera barne hartzen duen alokairuarekiko interes-maila lurralde historikoka eta pertsona esleipendunaren adinaren arabera ... 17
3.9. grafikoa Esleitutako etxebizitzen batez besteko azalera, 2013 ... 19
3.10. grafikoa Esleitutako etxebizitzen ekipamendua, edukitza-erregimenaren arabera ... 20
4.1. grafikoa Esleitutako etxebizitza sendigunearentzat lehenengoa da, 2013 ... 21
4.2. grafikoa Gaur egungo etxebizitzak epe ertainerako (5-10 urte) beharra estaltzen du lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 22
4.3. grafikoa Esleitutako etxebizitzarekiko asetasuna ... 24
4.4. grafikoa Esleitutako etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioaren batez besteko balorazioa ... 25
4.5. grafikoa Alokairuko etxebizitza baten esleipenarekiko asetasuna ... 26
4.6. grafikoa Alokairuarekiko asetasun-maila pertsona esleipendunaren adinaren arabera ... 26
4.7. grafikoa Etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko batez besteko asetasunaren bilakaera, 2010-2013 ... 27
4.8. grafikoa Etxebizitzaren tamainarekiko eta banaketarekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 28
4.9. grafikoa Etxebizitzaren kalitatearekiko eta ekipamenduarekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 29
4.10. grafikoa Esleitutako etxebizitzaren eraikinarekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 29
4.11. grafikoa Esleitutako etxebizitzaren inguruarekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 30
4.12. grafikoa Etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko batez besteko asetasunaren rankinga ... 31
4.13. grafikoa Esleitutako etxebizitzetan izandako gorabeherak edo arazoak ... 32
4.14. grafikoa Esleitutako etxebizitzetan antzemandako arazo nagusiak ... 33
4.15. grafikoa Jasotako erantzunarekin erlazionatutako alderdiei buruzko balorazioaren bilakaera, 2007-2013 ... 34




Donostia – San Sebastián, 1 – Tef. 945 01 98 71 – Fax 945 01 98 55 – 01010 Vitoria-Gasteiz

5.1. grafikoa Biztanle esleipendunen Etxebideren balorazio orokorra ... 35
5.2. grafikoa Biztanle esleipendunen batez besteko asetasuna esleipen-prozesuarekiko ... 36
5.3. grafikoa Esleipen-prozesuak nahikoa argiak eta gardenak direlarekiko adostasuna ... 37
5.4. grafikoa Esleipen-prozesuaren hainbat alderdiekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoaren eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 39
6.1. grafikoa Etxebizitza babestu gehiena alokairuan eraikitzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 40
6.2. grafikoa Etxebizitza babestuen prezioak/alokairuak diru-sarreretara egokitzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna lurralde historikoka etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 41
6.3. grafikoa Alokairuaren baldintzak diru-sarreren bilakaeraren arabera aldiro berrikusteko neurriarekiko batez besteko adostasun-maila lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 42
6.4. grafikoa Etxebizitza babestuaren ikuskaritzak egiteko neurriarekiko batez besteko adostasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ... 43
6.5. grafikoa Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean garatzen dituen jardueren inguruan biztanle esleipendunek egindako batez besteko balorazioa ... 44
6.6. grafikoa Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren egoera hobetzeko lehenetsi beharreko alderdiak ... 45
6.7. grafikoa Udalek etxebizitzaren alorrean garatzen dituen jardueren inguruan biztanle esleipendunek egindako batez besteko balorazioa ... 46
7.1. grafikoa Inkestan parte hartu duten etxebizitzaren pertsona esleipendunak sexuaren arabera, 2013 ... 47
7.2. grafikoa Biztanle esleipendunen ezaugarri sozioekonomiko nagusiak sexuaren arabera ... 49
8.1. grafikoa Esleitutako etxebizitzen eta eskatutako etxebizitzen batez besteko tamaina edukitza-erregimenaren arabera ... 58



Donostia – San Sebastián, 1 – Tef. 945 01 98 71 – Fax 945 01 98 55 – 01010 Vitoria-Gasteiz

# 1. SARRERA

Politika Publikoen Ebaluazio Proiektuaren baitan, 2013. urtean Inkesta bat egin da EAEn etxebizitza baten esleipendun izan diren biztanleen artean, etxebizitza babestu bat eskuratu duten pertsonen iritzia eta asetasun-maila ezagutzeko helburuarekin.

EAEko etxebizitza babestuaren esleipendunen ezaugarriei eta iritziari heldu aurretik, EAEko etxebizitza babestuaren eraikuntzaren daturik garrantzitsuenak aurkezten dira txostenaren hasieran, eta arreta berezia jarri da eraikitzen amaitutako etxebizitza babestuak berriki ezagutu duen bilakaeran, lurralde historikoak eta eskuratze-erregimena (alokairua eta jabetza) bereiziz. Txostenaren gainerakoa lantzeko, etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunek 2009tik 2012ra emandako informazioa erabili da.

Zehazkiago, 2013ko martxoan egin zitzaien inkesta etxebizitza babestuaren 802 pertsona esleipenduni eta lortutako emaitzen azterketak % 3ko errore-marjina du (% 95,5ekoa da konfiantza-maila). Lagina banatzeko kontuan hartu da lurralde historikoa eta etxebizitza eskuratzeko erregimena (erosketa edo alokairua). Ondorengo taulan ikus daiteke laginak lortu duen azken banaketa. Datuei ondoren emandako tratamenduari dagokionez, laginaren haztapena egiteko kontuan hartu da unibertsoak etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera eta lurralde historikoaren arabera izan duen banaketa.

1.1. taula EAEko etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkestako laginaren banaketa

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| ***LURRALDE HISTORIKOA*** | | |
| Araba | 269 | 33,5 |
| Bizkaia | 264 | 32,9 |
| Gipuzkoa | 269 | 33,5 |
| **GUZTIRA** | **802** | **100,0** |
| ***ESKURATZEKO ERREGIMENA*** | | |
| Erosketa | 399 | 49,8 |
| Alokairua | 403 | 50,2 |
| **GUZTIRA** | **802** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

9 kapituluk osatzen dute dokumentua. Sarrera da lehen kapitulua, eta ondoren, EAEko etxebizitza babestuaren eraikuntzaren datuak ematen dira, eta arreta berezia jarri da 2009-2012 aldiko datuetan eta talde horrengana zuzendu da 2013ko biztanleria esleipendunaren inkesta.

3. kapituluak biztanleria esleipendunaren ezaugarri soziodemografikoak eta bizitegikoak ditu ardatz, baita gaur egungo egoera ekonomiko zaila eta etxebizitza babestuaren ordainketei aurre egiteko zailtasunak ere. Etxebiden izena emanda dauden etxebizitza babestuaren eskatzaileen profilarekin alderatu da.

Jarraian, laugarren kapituluan, esleitutako etxebizitzarekin estali den behar motaren azterketa egin da eta epe ertainera edo luzera berriro ere etxebizitza-beharra edukiko duela aurreikusi duen taldearen zenbatespena egin da. Halaber, etxebizitzarekiko eta etxebizitzaren hainbat alderdiekiko asetasun orokorra aztertu da. Eta, amaitzeko, etxebizitza babestuetan antzemandako gorabeherak edo arazoak, horien larritasun-maila eta sortutako arazoa aztertzen dira, eta horiei erantzuteko orduan jasotako arreta baloratzen da.

Bosgarren kapituluan, biztanle esleipendunek Etxebide-Euskal Etxebizitza Zerbitzuari buruz egindako balorazio orokorra islatzen da, lehenik eta behin. Seigarren kapituluan zerbitzuan izena emanda dauden pertsonek etxebizitza-politikaren neurri garrantzitsuenei buruz eta Eusko Jaurlaritza eta Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanari buruz duten iritzia islatu da. Kapituluaren amaieran,etxebizitzaren egoera hobetzeko kontuan hartzeko hainbat gomendio adierazi dira. Bi kapituluetan datuak Etxebideko etxebizitza babestuaren biztanleria esleipendunaren artean lortutako datu garrantzitsuenekin alderatu dira.

Zazpigarren kapituluan emaitzak generoaren ikuspegitik aztertu dira. Lehenik eta behin, biztanle esleipendunen karakterizazioa egin da eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasun sozioekonomiko nagusiak azpimarratu dira. Halaber, beharrari emandako erantzunak eta esleitutako etxebizitzarekiko asetasun-mailak lortutako emaitza desberdinak islatu dira. Eta, amaitzeko, gizonezkoek eta emakumezkoek Etxebideri buruz, esleipen-prozesuari buruz eta etxebizitza-politikari buruz duten iritzia erakusten da.

Eta, amaitzeko, txostenaren emaitza nagusien laburpena egin da 8. kapituluan eta kontuan hartu beharreko hainbat gomendio adierazi dira 9. kapituluan.

# 2. ETXEBIZITZA BABESTUAREN ERAIKUNTZA EAE-N

Erreferentzia moduan EAEn Eraikitzen Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzen Estatistika hartzen bada, 2012an 3.835 etxebizitza babestu eraiki dira, eta kopuru hori aurreko urteetan lortutakoa bainoa baxuagoa da nabarmen. Zehazkiago, 2012an 1.700 etxebizitza babestu eraiki dira Araban, 1.003 Bizkaian eta 1.132 Gipuzkoan. Edukitza-erregimenari dagokionez, 3.333 etxebizitza erosketa-erregimenekoak direla azpimarratu behar da; 502 etxebizitza, berriz, alokairukoak dira.

Azken laurtekoan 18.971 etxebizitza babestu eraiki dira EAEn eta etxebizitza horiek inkestan parte hartu duten pertsonei esleitu zaizkie: Aipatutako aldian eraikitako etxebizitzen % 53 Arabako etxebizitzak dira, % 24 Bizkaikoak eta % 24 Gipuzkoakoak. Edukitza-erregimenari erreparatuz, 2009 eta 2012 artean erosketa-erregimeneko 15.988 etxebizitza eta alokairuko 3.033 etxebizitza eraiki dira, beraz, alokairukoak dira aldi osoan eraikitako etxebizitzen % 16.

Denbora-ikuspegi zabalago batetik, EAEn eraiki den etxebizitza babestuaren parke zabala erausten dute datuek. 1982 eta 2012 artean 100.000 etxebizitza babestu baino gehiago eraiki dira.

2.1. taula EAEn eraikitzen amaitutako etxebizitza babestuen bilakaera lurralde historikoka eta edukitza-erregimenaren arabera, 1982-2012

| | (1982-2008) | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | Guztira 2009-2012 | Guztira 1982-2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lurralde historikoa** | | | | | | | |
| Araba | 24.586 | 2.488 | 3.392 | 2.432 | 1.700 | 10.012 | 34.598 |
| Bizkaia | 35.029 | 1.060 | 1.303 | 1.125 | 1.003 | 4.491 | 39.520 |
| Gipuzkoa | 21.760 | 1.124 | 296 | 1.916 | 1.132 | 4.468 | 26.228 |
| **GUZTIRA** | **81.375** | **4.672** | **4.991** | **5.473** | **3.835** | **18.971** | **100.346** |
| **Edukitza-erregimena** | | | | | | | |
| Alokairua | 8.343 | 682 | 732 | 1.117 | 502 | 3.033 | 11.376 |
| Erosketa | 73.032 | 3.990 | 4.259 | 4.356 | 3.333 | 15.938 | 88.970 |
| **GUZTIRA** | **81.375** | **4.672** | **4.991** | **5.473** | **3.835** | **18.971** | **100.346** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.1. grafikoa Eraikitzen amaitutako etxebizitza babestuen bilakaera lurralde historikoka eta edukitza-erregimenaren arabera (datu metatua), 1982-2012

| Lurralde historikoa | Edukitza-erregimena |
|---|---|







Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

# 3. INKESTAN PARTE HARTU DUTEN BIZTANLE ESLEIPENDUNEN GIZARTE ETA BIZITEGI EZAUGARRIEN ADIERAZLEAK

Kapitulu honetan,gur egun EAEn etxebizitza babestu baten esleipendun diren biztanleen gizarte- eta bizitegi-ezaugarri nagusiei buruz hitz egiten da. Etxebizitza esleituaren titularraren profila, familia-unitateari buruzko datuak eta familiaren gaur egungo egoera ekonomikoa deskribatu dira. Halaber, esleitutako etxebizitza babestuen parkearen zenbait oinarrizko ezaugarri aurkezten dira.

## 3.1. Esleitutako etxebizitzaren titularraren karakterizazioa

2013an etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunei egindako inkesta honetan parte hartu duten pertsonen artetik % 52,5 emakumezkoak dira eta % 47,5,berriz, gizonezkoak. 7. kapituluan inkestako emaitzen azterketa espezifiko bat egin da generoaren ikuspegitik.
Biztanle esleipendunek adin-taldeen arabera lortu duten banaketari dagokionez, % 23k 30 urte baino gutxiago dituzte eta % 35ek 30-35 urte. Bestalde, % 31 35-44 tartean kokatu da eta % 11k 45 urte baino gehiago dituzte.

3.1. taula Etxebizitzaren biztanle esleipendunen egungo gizarte- eta bizitegi-ezaugarri nagusiak, 2013

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| ***SEXUA*** | | | |
| Emakumezkoa | 51,8 | 55,2 | 52,5 |
| Gizonezkoa | 48,2 | 44,8 | 47,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| ***GAUR EGUNGO ADINA*** | | | |
| < 30 urte | 24,7 | 15,2 | 22,7 |
| 30-34 urte | 37,4 | 25,5 | 34,8 |
| 35-44 urte | 31,4 | 30,4 | 31,2 |
| 45-64 urte | 5,4 | 23,9 | 9,3 |
| 65 urte eta gehiago | 1,2 | 5,0 | 2,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko adina (urteak)** | **34,2** | **39,6** | **35,4** |
| ***GAUR EGUNGO LAN-EGOERA*** | | | |
| Bere kontura egiten du lan | 6,1 | 7,0 | 6,3 |
| Lanean, lan finkoa | 63,4 | 31,6 | 56,5 |
| Lanean, aldi baterako lana | 13,2 | 15,3 | 13,6 |
| Langabezian | 13,4 | 34,7 | 18,0 |
| Erretiratua edo pentsioduna | 2,8 | 8,7 | 4,1 |
| Beste egoera bat | 1,1 | 2,7 | 1,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Inkestaren arabera, esleipendunen batez besteko adina 35 urtekoa da; batez besteko adina 40 urtekoa da, bestalde, alokairuko etxebizitza babestuaren biztanleria esleipendunaren kasuan, eta 34 urtekoa da, azkenik, erosketa-erregimeneko etxebizitza babestu bat eskuratu duten biztanleen kasuan.

Bilakaerari erreparatuz, joera nahiko irregularra ikus daiteke biztanleria esleipendunaren adinari dagokionez. 2008 eta 2010 artean batez besteko adina 37 urtekoa zen bitartean, azken bi urteetan 35 urtera jaitsi da pertsona esleipendunen adina.

### 3.1. grafikoa Etxebizitza babestu baten pertsona esleipendunaren batez besteko adina, 2013

**Batez besteko adina 2013**




**2007-2013 bilakaera**




* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako inkestatan galdetutako antzeko taldea).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Etxebizitza eskuratzeko modalitatearen kasuan, emaitzak aldatu egiten dira pertsona esleipendunaren nazionalitatearen arabera. Horrela, nazionalitate espainola duten pertsonen % 85 erosketa-erregimeneko etxebizitza baten esleipendun izan diren bitartean, proportzio hori % 29ra murrizten da pertsona atzerritarrei erreparatzen bazaie. Aitzitik, nazionalitate atzerritarra duten pertsonen % 71k alokairuko etxebizitza babestu bat eskuratu dute, eta proportzio hori % 15era murrizten da nazionalitate espainola duten pertsonei erreparatzen bazaie.

### 3.2. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko erregimena nazionalitatearen arabera, 2013

**Espainiarrak**




**Atzerritarrak**




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Pertsona esleipendunek gaur egun duten lan-egoerari dagokionez, biztanle esleipendunen % 56,5ek kontratu finkoa dute eta lanean ari dira; % 6k bere kontura lan egiten dute eta % 14k aldi baterako lan-kontratua dute. % 18 langabezian daude eta emaitza hori Etxebideko etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunen artean lortutakoa (% 23) baino baxuagoa da.

Dena den, alokairuko etxebizitza babestuen parkean bizi den biztanleriaren lan-egoera ezegonkorra baieztatzen dute inkestako datuek. % 35 langabezian daude, % 15ek aldi baterako lan-kontratua dute eta % 9 erretiratuta daude edo pentsiodunak dira. Adierazitako hiru portzentaje horiek nabarmenki gainditzen dituzte erosketa-erregimeneko etxebizitza babestu bat eskuratu duten biztanleen artean lortutakoak, eta, horrez gain, Etxebideko etxebizitza babestu baten eskatzaile diren biztanleekin alderatuz (% 30), egoera zailagoa dute.

## 3.3. grafikoa Langabezian dagoen biztanleria esleipenduna, 2013

**Langabeziaren portzentajea 2013**




**2007-2013 bilakaera**




* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Inkestako emaitzen arabera, etxebizitza babestuaren titularren % 66 ezkongabeak dira; proportzio hori % 71koa da erosketa-erregimeneko etxebizitzen kasuan eta % 48koa, berriz, alokairuko etxebizitzen artean. Etxebiden izena emanda dauden biztanleekin alderatuz, ezkongabe gehiago dago biztanleria esleipendunaren kasuan (% 66), biztanleria eskatzailearen kasuan baino, batez ere erosketa nahi duen taldearekin alderatzen bada: % 62 ezkongabeak dira eta azkenean erosi egiten dutenak taldeko % 71 dira.

Sendigune esleipendunen % 36 pertsona bakar batek osatutako sendiguneak dira eta proportzio hori Etxebiden izena emanda dauden pertsona bakar batek osatutako sendiguneena (etxebizitza babestuaren eskaeren % 67,5 dira) baino askoz ere baxuagoa da. Bestalde, familia esleipendunen % 40 bi pertsonak osatutako familiak dira, hiru kidek osatutakoak dira % 13 eta lau kide edo gehiago dituzte % 11k.

3.2. taula Etxebizitzaren biztanle esleipendunen familia-unitatearen gizarte- eta bizitegi-ezaugarri nagusiak, 2013

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| ***EGOERA ZIBILA*** | | | |
| Ezkongabea | 70,9 | 48,2 | 66,1 |
| Ezkondua | 18,5 | 34,1 | 21,8 |
| Izatezko bikote erregistratua | 7,6 | 5,0 | 7,1 |
| Banandua/Dibortziatua | 1,9 | 10,4 | 3,7 |
| Alarguna | 1,0 | 2,3 | 1,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| ***FAMILIA-UNITATEAREN TAMAINA*** | | | |
| Pertsona bakarra | 35,4 | 38,0 | 36,0 |
| Bi pertsona | 44,3 | 22,9 | 39,8 |
| Hiru pertsona | 12,3 | 16,7 | 13,3 |
| Lau pertsona | 6,2 | 12,0 | 7,4 |
| Bost pertsona edo gehiago | 1,8 | 10,4 | 3,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Familiaren batez besteko tamaina** | **2,0** | **2,4** | **2,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Etxebizitza babestu batean bizi diren familien batez besteko tamainari dagokionez, 2 pertsonako familiak dira,eta batez besteko hori zerbait altuagoa da alokairuko etxebizitza babestuetan bizi diren familiei erreparatzen bazaie (2,4 pertsona familiako).

3.4. grafikoa Etxebizitza babestu baten biztanle esleipendunek osatutako familien batez besteko tamaina, 2013




* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).
Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

## 3.2. Karakterizazio ekonomikoa

Inkestan parte hartu duten biztanle esleipendunek emandako informazioaren arabera, hileko diru-sarrerak 1.542 euro garbikoak dira batez beste. Inkestako emaitzek erakusten duten moduan, gaur egun erosketa-erregimeneko etxebizitza babestu baten esleipendun diren biztanleek dituzten diru-sarrerak, alokairuko etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunek dituztenak baino askoz ere altuagoak dira. Zehazkiago, gaur egun hileko sarrera gordinak 1.659 eurokoak dira erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzen kasuan, eta 1.105 eurokoak dira, berriz, alokairukoen kasuan.

3.3. taula Sendigunearen hileko diru-sarrera garbien maila etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| 630 euro bitartean | 0,7 | 16,6 | 4,1 |
| 631-720 euro | 1,2 | 4,4 | 1,9 |
| 721-840 euro | 2,7 | 10,9 | 4,4 |
| 841-990 euro | 2,1 | 10,6 | 3,9 |
| 991-1.140 euro | 7,7 | 17,8 | 9,9 |
| 1.141-1.290 euro | 10,0 | 13,6 | 10,8 |
| 1.291-1.410 euro | 11,4 | 8,8 | 10,8 |
| 1.411-1.650 euro | 12,6 | 3,5 | 10,7 |
| 1.651-2.160 euro | 23,7 | 7,4 | 20,3 |
| 2.160 euro baino gehiago | 27,8 | 6,4 | 23,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko diru-sarrerak** | **1.658,7** | **1.104,7** | **1.541,6** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Gipuzkoako biztanle esleipendunen artean batez beste hilean 1.598 euro garbikoak dira diru-sarrerak, Bizkaian (1.529 euro) eta Araban (1.518 euro) erregistratutako batez bestekoen gainetik.

3.5. grafikoa Etxebizitza babestu baten biztanle esleipendunen batez besteko diru-sarrerak lurralde historikoka eta edukitza-erregimenaren arabera, 2013




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

EAEko etxebizitza babestuen parkean bizi diren familien egoera ekonomikoa sakonkiago aztertuz, inkestan parte hartu duten pertsonen % 12,5ek adierazi dute gaur egun zailtasunak dituztela etxebizitza babestuaren ordainketei aurre egiteko, eta proportzio hori 2012an lortutakoa baino altuagoa da (% 11,3koa izan zen 2012n).

3.4. taula Esleitutako etxebizitza babestuaren ordainketari aurre egiteko zailtasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| **Gaur egun zailtasunak ditu etxebizitza babestuaren ordainketei aurre egiteko** | | | |
| Bai | 7,3 | 31,8 | 12,5 |
| Ez | 92,7 | 68,2 | 87,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Diru-laguntzarik jasotzen al duzu etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko?** | | | |
| Bai | 0,8 | 16,6 | 4,1 |
| Ez | 98,6 | 82,9 | 95,3 |
| Ed/Ee | 0,6 | 0,5 | 0,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Esparru geografikoa kontuan hartuta, Araban % 15ekoa da etxebizitza ordaintzeko zailtasunak dituzten familien proportzioa, eta proportzio hori % 10ekoa da Gipuzkoan eta % 9koa Bizkaian. Arazo handienak alokairuko etxebizitza babestuetan bizi diren familiek dituzte. Zehazkiago, BPEren familia errentarien % 32k aitortu dute gaur egun zailtasunak dituztela alokairu-errenta ordaintzeko, duela urtebete lortutako emaitzaren parean (2012an % 34koa izan zen proportzioa). Hain zuzen, alokairuko etxebizitza babestu batean bizi diren familien % 17k adierazi dute diru-laguntza publiko bat jasotzen dutela etxebizitzaren ordainketei aurre egin ahal izateko.

3.6. grafikoa Esleitutako etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko gaur egungo zailtasuna lurralde historikoka eta edukitza-erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, erosketa-erregimeneko etxebizitzaren biztanle esleipendunei finantzaketa lortzeko zailtasunik eduki ote duten galdetu zaie, eta % 22k baietz erantzun dute. Modu berean, oso portzentaje baxua lortu da (guztizkoren % 7) gaur egun esleitutako etxebizitzaren lurzoruaren azalera-eskubidea erosteko aukerari buruz galdetzean.

3.5. taula Erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzaren balorazioa

| | Erosketa |
|---|---|
| **Finantzaketa lortzeko zailtasunak** | |
| Bai | 22,0 |
| Ez | 78,0 |
| **Guztira** | **100,0** |
| **Etxebizitza babestuaren lurzoruaren azalera-eskubidea eskuratzeagatiko interesa** | |
| Nire etxebizitzaren jabetza osoa nirea da | 56,8 |
| Jada erosi dut nire etxebizitzaren lurzorua | 3,1 |
| Erosteko interesa dut | 7,2 |
| Ez dut lurzorua erosteko interesik | 22,3 |
| Ed/Ee | 10,5 |
| **Guztira** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

3.7. grafikoa Erosketa-erregimeneko etxebizitza babestuaren esleipendun izanik etxebizitzaren lurzorua erosteko interesa duten biztanleen proportzioa lurralde historikoka eta pertsona esleipendunaren adinaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Halaber, alokairuko etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunek interes gutxi agertu dute esleitu zaien eta bizi diren etxebizitza erosteko aukerari buruz galdetzean. % 41ek esan dute aukera interesgarria dela; % 55ek kontrakoa adierazi dute.

0-100 eskala batean, alokairuan esleitutako etxebizitza erosteagatiko interesa 37 puntukoa da. Interesak puntuazio positiboa lortu du Bizkaiko errentarien artean bakarrik, baita 30 urte baino gutxiago dituzten biztanleen artean ere.

3.6. taula Alokairuan esleitutako etxebizitza erosteagatiko interesa

| | Erosketa |
|---|---|
| Oso interesgarria | 10,4 |
| Interesgarria | 31,0 |
| Interes gutxikoa | 15,3 |
| Ez da interesgarria | 39,9 |
| Ed/Ee | 3,5 |
| **Guztira** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100** | **37,4** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

3.8. grafikoa Erosteko aukera barne hartzen duen alokairuarekiko interes-maila lurralde historikoka eta pertsona esleipendunaren adinaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

## 3.3. Esleitutako etxebizitzen ezaugarriak

EAEn esleitutako etxebizitzen ezaugarriei dagokienez, eta Inkestako datuen arabera, biztanle esleipendunak batez beste 74,5 $m^2$ dituen etxebizitza batean bizi dira.

Oraingoan ere erosketa-erregimeneko etxebizitzak (76 $m^2$) alokairukoak baino handiagoak dira (67 $m^2$-koak dira batez beste alokairukoak). Hain zuzen, alokairuan 61-75 $m^2$ arteko etxebizitzak dira gehiengoa eta erosketa-erregimenean, berriz, gehiago dira 76-90 $m^2$ artekoak.

Bi kasuetan, esleitutako etxebizitzen batez besteko tamaina handiagoa da, Etxebiden izena emanda dauden eskatzaileek nahi dituzten etxebizitzenarekin alderatzen bada. Hain zuzen ere, azken horien artean 68,5 $m^2$-ko batez bestekoa erregistratu da erosketa-erregimeneko etxebizitzen kasuan, eta 60 $m^2$-koa da batez bestekoa, alokairuko etxebizitzen kasuan.

3.7. taula Esleitutako etxebizitzen tamaina, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| < 40 $m^2$ | 0,2 | 0,2 | 0,2 |
| 41 eta 60 $m^2$ bitartean | 6,2 | 27,4 | 10,7 |
| 61 eta 75 $m^2$ bitartean | 30,0 | 41,3 | 32,4 |
| 76 eta 90 $m^2$ bitartean | 61,0 | 25,8 | 53,6 |
| 91 eta 120 $m^2$ bitartean | 0,6 | 1,1 | 0,7 |
| Ed/Ee | 1,8 | 4,2 | 2,4 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko azalera** | **76,4** | **67,3** | **74,5** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Esparru geografikoa kontuan hartuta, Araban esleitutako etxebizitzak (77 $m^2$) Bizkaian (73 $m^2$) edo Gipuzkoan (70,5 $m^2$) esleitutakoak baino handiagoak direla ikus daiteke.

## 3.9. grafikoa Esleitutako etxebizitzen batez besteko azalera, 2013

**Batez besteko azalera** | **2007-2013 bilakaera**




* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Esleitutako etxebizitzen logela kopuruari dagokionez, % 59 3 logelako etxebizitzak dira eta % 35 2 logelakoak. Hiru logela ditu erosketa-erregimeneko etxebizitzen gehiengoak, baina gehiago dira bi logelako etxebizitzak alokairuko parkeko etxebizitzen artean.

## 3.8. taula Esleitutako etxebizitzen logela kopurua, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| 1 logela | 2,1 | 16,6 | 5,2 |
| 2 logela | 31,3 | 50,5 | 35,4 |
| 3 logela | 66,2 | 32,4 | 59,0 |
| 3 logela baino gehiago | 0,4 | 0,6 | 0,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Inkestako datuen arabera, esleitutako etxebizitza ia guztiek dute trastelekua (% 96) eta garajea (% 98,5). Halaber, esleitutako etxebizitza gehienen kasuan (% 80,5) etxebizitza kokatzen den eraikinean zerbitzu komunak daude. Sukalde ekipatua duten etxebizitzei dagokienez, desberdintasun nabarmenak ikus daitezke edukitza-erregimenaren arabera: esleitutako alokairuko etxebizitzen % 75ek sukalde ekipatua dute; portzentaje hori % 28koa da erosketa-erregimeneko etxebizitzen kasuan.

## 3.9. taula Esleitutako etxebizitzen ekipamendua, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| baiezkoen % | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Sukalde ekipatua | 28,1 | 75,1 | 38,1 |
| Garajea | 98,8 | 97,3 | 98,5 |
| Trastelekua | 97,4 | 92,8 | 96,4 |
| Zerbitzu komunak | 82,4 | 73,5 | 80,5 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

## 3.10. grafikoa Esleitutako etxebizitzen ekipamendua, edukitza-erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

4. ETXEBIZITZAREN BEHARRARI EMANDAKO ERANTZUNAREN ETA ETXEBIZITZAREKIKO ASETASUNAREN ADIERAZLEAK

Jarraian, esleitutako etxebizitzaren bitartez estali den behar motaren deskribapena egin da. Halaber, etxebizitza babestu batean bizi diren familiei galdetu zaie epe ertainera izango duten etxebizitza-beharrari buruz. Bestalde, esleitutako etxebizitzarekiko asetasun orokorraren zenbatespena egin da eta etxebizitzaren alderdi jakin batzuekiko asetasuna aztertu da. Eta kapitulua amaitzeko, etxebizitzetan antzemandako arazoak edo gorabeherak eta emandako konponbideak aztertu dira

## 4.1. Beharraren estalduraren adierazleak

Inkestako datuek baieztatzen duten moduan, esleitutako etxebizitzen % 56 sendigunearen lehen etxebizitzak dira. Proportzio hori altuagoa da erosketa-erregimeneko etxebizitza bat eskuratu duten familien artean (% 63) eta baxuagoa da, aitzitik, alokairuan bizi diren familien artean (% 29).

Esparru geografikoak bereizten badira, lehen etxebizitza eskuratu duten sendigune gehiago daude Bizkaian (% 61) eta Gipuzkoan (% 61), Araban baino (% 50). Arabako familia esleipendunen erdiak baieztatu dutenez, lehen beste etxebizitza batean bizi ziren, eta etxebizitza babestu bat eskuratu izanari esker, ohiko bizilekua aldatu ahal izan dute.

4.1. grafikoa Esleitutako etxebizitza sendigunearentzat lehenengoa da, 2013

**baiezkoen %**




**2010-2013 bilakaera**




* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Etxebizitza-beharra estalita dutela uste ote duten galdetu zaie esleipendunei eta gehienek (% 8) esan dute esleitutako etxebizitzari esker estali dutela epe ertainera (5-10 urte) eduki dezaketen etxebizitza-beharra. % 9k bakarrik erantzun dute beste etxebizitza bat beharko dutela epe ertainera, eta portzentaje hori % 21ekoa da alokairuaren kasuan.

4.1. taula Alokairuan esleitutako etxebizitzak epe ertainerako (5-10 urte) beharra estaltzen duelako pertzepzioa etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Bai | 92,0 | 72,4 | 87,8 |
| Ez | 6,0 | 21,1 | 9,2 |
| Ed/Ee | 2,0 | 6,4 | 3,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

4.2. grafikoa Gaur egungo etxebizitzak epe ertainerako (5-10 urte) beharra estaltzen du lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Ohiko bizilekua aldatzeko beharrari erantzun nahian, biztanle esleipendunei galdetu zaie erosketa-erregimeneko etxebizitza babestua trukatzeko poltsa ezagutzen ote duten. Esleipendunen % 47k esan dute ezagutzen dutela, nahiz eta asko diren (% 32) inoiz poltsari buruz hitz egiten entzun dutenak.

4.2. taula Etxebizitza babestua trukatzeko poltsaren ezaguera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Bai | 18,2 | 5,6 | 15,02 |
| Bai, entzun dut berari buruz hitz egiten | 39,1 | 13,5 | 32,0 |
| Ez | 41,8 | 78,7 | 51,9 |
| Ed/Ee | 0,9 | 2,2 | 1,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

## 4.2. Etxebizitzarekiko eta etxebizitzaren hainbat alderdiekiko asetasun orokorra

### 4.2.1. Etxebizitzarekiko asetasun orokorra

Eskuarki, etxebizitza babestuaren familia esleipendunak pozik daude etxebizitzarekin. Maiztasunen banaketari erreparatuz, % 34 oso pozik daude eta % 58 nahiko pozik. Pozik ez daudenak galdetutakoen % 7 dira.

4.3. taula Etxebizitzarekiko asetasun-maila etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Oso pozik | 35,0 | 29,4 | 33,8 |
| Nahiko pozik | 58,4 | 57,7 | 58,3 |
| Ez oso pozik | 5,2 | 10,3 | 6,3 |
| Poztasunik bat ere ez | 0,9 | 1,9 | 1,1 |
| Ed/Ee | 0,5 | 0,7 | 0,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100** | **76,1** | **71,8** | **75,2** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Familia esleipendunen artean 75 puntuko batez besteko asetasuna lortu da (0-100 eskala batean, poztasunik bat ere ez-oso pozik).. Batez besteko asetasun-maila oso altua lortu da aztertutako talde guztietan, baina altuagoa izan da Gipuzkoan (79 puntu) eta Bizkaian (77 puntu), Araban baino (% 72). Batez besteko asetasun-maila altuagoa lortu da erosketa-erregimeneko etxebizitzaren pertsona esleipendunen artean (76 puntu), alokairukoekin alderatuta (72 puntu).

Bilakaerari erreparatzen bazaio, biztanle esleipendunen asetasun-mailak beti gainditu izan du 70 puntuko balorazioa, 2010ean izan ezik.

4.3. grafikoa Esleitutako etxebizitzarekiko asetasuna

| Batez besteko asetasuna | 2007-2013 bilakaera |
|---|---|
|  |  |





* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Esleitutako etxebizitza babestuen kalitatea/prezioa erlazioari buruz egindako balorazioari dagokionez, % 21ek oso ona dela esan dute eta % 64k nahiko ona dela. Horrela, 68 puntukoa da (0-100 eskalan) kalitatea/prezioa erlazioak lortu duen batez besteko puntuazioa: 70 puntukoa da batez bestekoa erosketa-erregimeneko etxebizitzen kasuan eta 64 puntura jaisten da alokairukoen kasuan. Oraingoan ere Gipuzkoan altuagoa izan da balorazioa (74 puntu), Bizkaiarekin (69 puntu) eta Arabarekin (65 puntu) alderatuta.

4.4. taula Etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioaren balorazioa etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Oso ona | 21,0 | 21,6 | 21,1 |
| Nahiko ona | 67,2 | 53,5 | 64,3 |
| Nahiko txarra | 9,1 | 17,6 | 10,9 |
| Oso txarra | 1,9 | 6,6 | 2,9 |
| Ed/Ee | 0,9 | 0,6 | 0,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100** | **69,4** | **63,6** | **68,2** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Bilakaerari erreparatzen bazaio, 2008an lortu zen emaitzarik onena kalitatea/prezioa erlazioaren balorazioan, eta 2009an behera egin eta gero, 68 puntukoa da gaur egungo balorazioa.

**4.4. grafikoa Esleitutako etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioaren batez besteko balorazioa**

| Batez besteko asetasuna | 2007-2013 bilakaera |
|---|---|







* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

### 4.2.2. Alokairuko etxebizitza baten esleipenaren balorazioa

Esleitutako etxebizitza alokairuko etxebizitza bat izateak gero eta asetasun-maila hobeak sortzen ditu. Horrela, etxebizitza babestu baten errentarien % 91k oso pozik edo nahiko pozik daudela esan dute. Aitzitik, % 9k oso pozik ez daudela adierazi dute eta % 6k, azkenik, asetasunik eza agertu dute.

Alokairuan esleitutako etxebizitzarekiko batez besteko asetasuna 76 puntukoa da (0-100), eta 2007-2013 aldi osoko emaitzarik altuena dela azpimarratu behar da.

Antzeko asetasun-mailak erregistratu dira lurralde historiko guztietan, eta asetasunak hobera egiten du pertsona esleipendunaren adinak gora egin ahala, ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan.

**4.5. taula Alokairuko etxebizitza baten esleipenarekiko asetasuna**

| | Alokairua |
|---|---|
| Oso pozik | 37,6 |
| Nahiko pozik | 53,4 |
| Ez oso pozik | 7,2 |
| Poztasunik bat ere ez | 1,7 |
| Ed/Ee | 0,1 |
| **Guztira** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100** | **75,7** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

4.5. grafikoa  Alokairuko etxebizitza baten esleipenarekiko asetasuna




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

4.6. grafikoa  Alokairuarekiko asetasun-maila pertsona esleipendunaren adinaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

### 4.2.3. Etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko asetasuna

Esleitutako etxebizitzarekiko asetasun-maila sakonkiago ezagutzeko, etxebizitzaren hainbat alderdiri buruz lortutako emaitzak adierazi dira jarraian. Alderdi horiek dira: etxebizitzaren tamaina eta banaketa, kalitatea eta ekipamendua eta kokatzen den eraikina eta ingurua.

2013ko inkestaren arabera, etxebizitzaren tamaina eta banaketa da hobekien baloratu den alderdia: 76 puntuko batez besteko asetasun-maila lortu da. Garrantziaren arabera, ingurua dago ondoren, 71,5 puntuko batez bestekoarekin. Etxebizitza babestua kokatzen den eraikinarekiko asetasuna, bestalde, 70,5 puntura iritsi da. Azkenik, kalitatearekiko eta ekipamenduarekiko batez besteko asetasunaren kasuan lortu da baliorik baxuena: 55 puntu batez beste.

Bilakaerari erreparatuz, emaitzek asetasun-mailak hobera egin duela erakusten dute, eta hobekuntza alderdi guztietan lortu da, kokapenaren eta inguruko bizi-kalitatearen kasuan izan ezik. Asetasun-maila oso onak lortu badira ere, 2010ean eta 2012an baino baxuagoak izan dira.

4.7. grafikoa Etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko batez besteko asetasunaren bilakaera, 2010-2013




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Etxebizitzaren tamainari eta banaketari buruz egindako balorazioei dagokienez, lehen esan den moduan, etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunek asetasun-maila oso altuak erakutsi dituzte aztertutako item guztietan: 77 puntuko batez bestekoa erosketaren kasuan eta 73 puntukoa alokairukoan. Jabetzako etxebizitza bat duten familiek oso balorazio positiboak egin dituzte etxebizitzaren tamaina, logela kopuru eta banaketaren itemetan. Alokairuaren kasuan, puntuazioa altuagoak lortu dira garajearen eta trastelekuaren balorazioan.

4.6. taula Esleitutako etxebizitzaren tamainarekiko eta banaketarekiko asetasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| Batez besteko asetasuna (0-100 indizea) | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Etxebizitzaren neurria | 80,3 | 70,9 | 78,3 |
| Logela kopurua | 79,7 | 67,1 | 77,0 |
| Etxebizitzaren banaketa | 77,2 | 73,0 | 76,3 |
| Garajearen tamaina | 73,1 | 76,4 | 73,8 |
| Trastelekuaren tamaina | 74,2 | 76,7 | 74,7 |
| **Batez beste** | **76,9** | **72,8** | **76,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

4.8. grafikoa Etxebizitzaren tamainarekiko eta banaketarekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Aurreko edizioetan bezala,oraingoan ere etxebizitza babestuen kalitatea eta ekipamendua dira asetasun-maila baxuenak erregistratu dituzten alderdiak. Horrela, 57 puntukoa da batez besteko asetasuna akaberaren kalitateari dagokionez, eta 54 puntukoa da, berriz, isolamenduak (termikoak eta akustikoak) eta sukalde eta komuneko ekipamenduak lortutako batez besteko asetasuna.

Kritikoagoak dira erosketa-erregimeneko etxebizitza bat duten familiak sukalde eta komuneko ekipamendua baloratzean, alokairuko familiekin alderatuta. Dena den, emaitza hori koherentea da kontuan hartzen bada etxebizitza horien artetik % 28 bakarrik ematen direla sukaldea ekipatuta dutela.

4.7. taula Esleitutako etxebizitzaren kalitatearekiko eta ekipamenduarekiko asetasuna, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| **Batez besteko asetasuna (0-100 indizea)** | **Erosketa** | **Alokairua** | **Guztira** |
|---|---|---|---|
| Akaberaren kalitatea | 57,2 | 56,8 | 57,1 |
| Isolamendua (termikoa, akustikoa) | 53,9 | 52,6 | 53,6 |
| Ekipamendua (sukaldea/komuna) | 50,5 | 63,3 | 53,6 |
| **Batez besteko asetasuna (0-100 indizea)** | **53,8** | **57,6** | **54,8** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

4.9. grafikoa Etxebizitzaren kalitatearekiko eta ekipamenduarekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Eraikinaren berezko alderdiekiko asetasun-maila 70 puntukoa da erosketaren kasuan eta 71 puntukoa, berriz, alokairuaren kasuan. Eraikinaren irisgarritasuna (76 puntu) eta etxebizitzak eraikinean duen kokapena (75 puntu) dira hobekien baloratu diren alderdiak. 68 puntuko batez besteko asetasuna lortu dute kanpoko itxurak eta sotoak eta eskailerek.

4.8. taula Esleitutako etxebizitzaren eraikinarekiko asetasuna, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| 0-100 indizea | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Kanpoko itxura | 66,5 | 71,7 | 67,6 |
| Sotoa, eskailerak | 68,2 | 67,8 | 68,1 |
| Irisgarritasuna | 76,2 | 73,7 | 75,7 |
| Etxebizitzak eraikinean duen kokapena | 74,8 | 74,3 | 74,7 |
| **Batez besteko asetasuna (0-100 indizea)** | **70,3** | **71,1** | **70,5** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

4.10. grafikoa Esleitutako etxebizitzaren eraikinarekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Pertsona esleipendunei etxebizitzak kokatzen diren inguruari buruz galdetu zaie eta iritzi oso positiboak eman dituzte (71,5 puntu batez beste), nahiz eta aurreko urteekin alderatuz, zerbait behera egin den oraingoan. Bizilagunekin elkarbizitza da hobekien baloratu den itema (74 puntu batez beste) eta ondoren dago etxebizitzaren kokapena (71 puntu). Zerbait baxuagoa da inguruko bizi-kalitateak lortu duen asetasuna (66 puntu).

4.9. taula Inguruarekiko asetasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| 0-100 indizea | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Kokapena (hirigunetik gertu/urrun) | 70,2 | 73,8 | 71,0 |
| Inguruneko bizi-kalitatea | 65,4 | 68,8 | 66,1 |
| Elkarbizitza auzokideekin | 76,5 | 65,8 | 74,3 |
| **Batez besteko asetasuna (0-100 indizea)** | **71,8** | **70,7** | **71,5** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

4.11. grafikoa Esleitutako etxebizitzaren inguruarekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Amaitzeko, esleitutako etxebizitzarekin lotuta aztertu diren item guztietan lortutako batez besteko asetasuna ikus daiteke ondorengo grafikoan. Itemen ranking bat osatu da modu horretara, asetasun-maila handienetik txikienera. Etxebizitzaren tamaina, logela kopurua eta banaketa agertzen dira rankingaren lehen postuetan, eta sukalde eta komuneko ekipamendua eta isolamendua (termikoa eta akustikoa), berriz, azken postuetan.

4.12. grafikoa Etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko batez besteko asetasunaren rankinga




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

4.10. taula Etxebizitzaren hainbat alderdiekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Etxebizitzaren neurria | 80,2 | 76,7 | 76,4 | 80,3 | 70,9 | 78,3 |
| Logela kopurua | 78,9 | 74,6 | 75,9 | 79,7 | 67,1 | 77,0 |
| Etxebizitzaren banaketa | 75,4 | 77,4 | 76,9 | 77,2 | 73,0 | 76,3 |
| Akaberaren kalitatea | 57,4 | 56,0 | 57,7 | 57,2 | 56,8 | 57,1 |
| Isolamendua (termikoa, akustikoa) | 53,8 | 51,3 | 55,7 | 53,9 | 52,6 | 53,6 |
| Ekipamendua (sukaldea/komuna) | 50,7 | 53,8 | 68,5 | 50,5 | 63,3 | 53,6 |
| Kanpoko itxura | 65,9 | 66,6 | 71,9 | 66,5 | 71,7 | 67,6 |
| Sotoa, eskailerak | 64,5 | 69,2 | 74,0 | 68,2 | 67,8 | 68,1 |
| Irisgarritasuna | 74,6 | 74,6 | 78,8 | 76,2 | 73,7 | 75,7 |
| Etxebizitzak eraikinean duen kokapena | 73,6 | 73,2 | 78,3 | 74,8 | 74,3 | 74,7 |
| Kokapena (hirigunetik gertu/urrun) | 68,4 | 71,9 | 74,9 | 70,2 | 73,8 | 71,0 |
| Inguruneko bizi-kalitatea | 60,1 | 65,3 | 78,3 | 65,4 | 68,8 | 66,1 |
| Elkarbizitza auzokideekin | 71,8 | 75,4 | 77,7 | 76,5 | 65,8 | 74,3 |
| Garajearen tamaina | 76,3 | 74,3 | 68,4 | 73,1 | 76,4 | 73,8 |
| Trastelekuaren tamaina | 77,2 | 77,0 | 66,5 | 74,2 | 76,7 | 74,7 |

* Gorriz adierazi dira okerren baloratu diren alderdiak (60 puntutik behera).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

## 4.3. Esleitutako etxebizitzetan izandako arazoak edo gorabeherak eta horien konponbidea

Inkestako emaitzen arabera, galdetutako familien % 51k arazoak eduki dituzte etxebizitzan eta proportzio hori murriztuz joan dela azpimarratu behar da.

Esleitutako etxebizitzan izandako gorabeheren edo arazoen proportzioa altuagoa da Bizkaian (% 57), Arabarekin (% 50) eta Gipuzkoarekin (% 48) alderatuta. Eskuratze-erregimenaren araberako azterketa bat eginez ikus daitekeen moduan, arazoen proportzioa altuagoa da erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzen kasuan: % 55eko eragin-maila; % 40koa izan da alokairuaren kasuan.

4.13. grafikoa Esleitutako etxebizitzetan izandako gorabeherak edo arazoak

**baiezkoen %** | **2007-2013 bilakaera**




* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).
Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Esleitutako etxebizitzarekin gorabeheraren bat eduki dutela adierazi duten familiek esandakoa sakonkiago aztertuz, % 50ek etxebizitzaren elementu propioetan arazoak eduki dituztela esan dute; % 23k elementu komunak aipatu dituzte arazoen iturritzat eta % 27k, azkenik, bi tipologiak aipatu dituzte.

4.11. taula Esleitutako etxebizitzan antzemandako arazo mota

| 0-100 indizea | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Etxebizitzaren elementu propioetan bakarrik | 48,0 | 59,1 | 49,8 |
| Eraikinaren elementu komunetan bakarrik | 22,9 | 25,3 | 23,3 |
| Biak | 29,1 | 15,7 | 26,9 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Etxebizitzaren elementu propioei erreparatuz, leiho eta ateetako arazoak edo lurrarekin izandako arazoak dira gehien aipatu direnak (% 26 eta % 24, hurrenez hurren). Ondoren aipatu dira uraren eta elektrizitatearen instalazioak (% 18) edo komun edo sukaldeko instalazioak (% 17). Eraikinaren elementu komunei dagokienez, fatxadako arazoak (% 18) edo sotoko arazoak (% 14) dira gehien aipatu direnak.

## 4.14. grafikoa Esleitutako etxebizitzetan antzemandako arazo nagusiak

**Etxebizitzaren elementu propioak**




**Eraikinaren elementu komunak**




* Familia esleipendunen guztizkoaren gainean kalkulatutako portzentajea.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Etxebizitzarekin arazoren bat eduki dutela baieztatu duten familien guztizkotik % 33k aitortu dute sustatzailearekin harremanetan jarri zirela eta arazoari konponbide egokia eman zitzaiola; % 61ek, aitzitik, arazoa konpondu gabe geratu zela azpimarratu dute. Gainerako % 6k esan dute ez direla harremanetan jarri etxebizitzaren sustatzailearekin.

## 4.12. taula Etxebizitzan antzemandako gorabeherari edo arazoari emandako konponbidea edukitza-erregimenaren arabera

| | **Erosketa** | **Alokairua** | **Guztira** |
|---|---|---|---|
| **Arazoa edo gorabehera konpontzeko kontaktua** | | | |
| Harremanetan jarri nintzen eta arazoa konpondu zuten | 33,3 | 33,5 | 33,3 |
| Harremanetan jarri nintzen baina EZ zuten arazoa konpondu | 61,2 | 59,5 | 60,9 |
| Ez nintzen harremanetan jarri. | 5,5 | 7,0 | 5,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

* Etxebizitzan gorabehera negatibo bat eduki duten kasuak bakarrik barne hartu dira.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Antzemandako arazoa konpontzeko jasotako arretari buruzko iritziak sakonkiago aztertuz, familiek ondo baloratu dute langileen aldetik jasotako tratua eta adeitasuna eta 56 puntuko batez besteko balorazioa lortu da (0-100). Erantzuteko orduan erakutsitako eraginkortasuna (30 puntu) eta arazoa konpontzeko azkartasuna (25 puntu) dira okerren baloratu diren bi alderdiak.

Edozein modutan, eta bilakaerari erreparatzen bazaio, 2013ko emaitzak duela urtebete egindako inkestakoak baino hobeak dira, eta 2010ean lortutakoen antzekoak.

4.15. grafikoa Jasotako erantzunarekin erlazionatutako alderdiei buruzko balorazioaren bilakaera, 2007-2013




* Etxebizitzan gorabehera negatibo bat eduki duten kasuak bakarrik barne hartu dira.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

# 5. ETXEBIDEREN ETA ETXEBIZITZA BABESTUEN ESLEIPEN-PROZESUAREN BALORAZIOAREN ADIERAZLEAK

Kapitulu honen hasieran, biztanle esleipendunek Etxebide-Euskal Etxebizitza Zerbitzuarekin erakutsitako asetasunari buruzko datu orokorrak erakusten dira. Halaber, esleipen-prozesuari buruz eta prozesu horren gardentasunari buruz duten iritzia ezagutu daiteke. Era berean, esleipenaren beste osagai batzuen azterketa egin da, besteak beste eskainitako informazioa, emate-data, langileengandik jasotako arreta edo esleipenerako egin beharreko izapideak.

## 5.1. Etxebideren balorazio orokorra

Etxebizitza Euskal Zerbitzuari buruzko iritziarekin hasita, etxebizitza babestuaren pertsona esleipendunek Etxebizitza Euskal Zerbitzuari buruzko iritzi ona dutela erakusten dute datuek eta 68 puntukoa da batez besteko asetasuna (0-100), Etxebideko erregistroko etxebizitza babestuaren biztanle eskatzaileek adierazitako iritzia (56 puntu) baino askoz ere altuagoa.

5.1. taula Biztanle esleipendunen Etxebideren balorazio orokorra etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| 0-100 indizea | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Oso ona | 5,7 | 12,1 | 7,0 |
| Ona | 60,4 | 50,5 | 58,3 |
| Tartekoa | 22,6 | 22,9 | 22,6 |
| Txarra | 2,3 | 4,3 | 2,7 |
| Oso txarra | 1,7 | 1,9 | 1,7 |
| Ed/Ee | 7,4 | 8,4 | 7,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazio (0-100 indizea)** | **67,9** | **68,2** | **67,9** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten esleipendunek emandako iritzietan, bizi diren lekua edo esleitutako etxebizitza mota kontuan hartuta. Eta bilakaerari erreparatuz, biztanle esleipendunek zerbitzuari buruz duten iritzia egonkortzen ari dela erakusten dute emaitzek.

5.1. grafikoa Biztanle esleipendunen Etxebideren balorazio orokorra

**Batez besteko balorazio orokorra** | **2007-2013 bilakaera**




* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

## 5.2. Esleipen-prozesuaren balorazioa

### 5.2.1. Esleipen-prozesuaren balorazio orokorra

Eskuarki, EAEko etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunek iritzi oso positiboa dute esleipen-prozesuari buruz eta 70 puntukoa da batez besteko puntuazioa. Erosketa-erregimeneko etxebizitza bat eskuratu duten biztanleek esleipen-prozesuaren aurrean erakutsitako asetasun-maila (69 puntu), alokairuko etxebizitzetan bizi diren pertsonek erakutsitakoa (73 puntu) baino pixka bat baxuagoa da.

5.2. taula Esleipen-prozesuaren balorazioa, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| 0-100 indizea | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Oso ona | 0,5 | 0,0 | 0,4 |
| Ona | 5,6 | 3,3 | 5,1 |
| Tartekoa | 16,8 | 9,7 | 15,3 |
| Txarra | 70,1 | 78,1 | 71,8 |
| Oso txarra | 7,0 | 8,9 | 7,4 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazioa (0-100 indizea)** | **69,4** | **73,2** | **70,2** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Esleipen-prozesuaren asetasun-maila altuagoa da alokairuko etxebizitza bat eskuratu duten familien artean (73 puntu) eta Gipuzkoako kasuen artean (72,5 puntu). Bilakaerari dagokionez, gaur egungo emaitzak 2007-2013 aldiko altuenetakoak direla azpimarratu behar da.

5.2. grafikoa Biztanle esleipendunen batez besteko asetasuna esleipen-prozesuarekiko

**Batez besteko asetasuna**




**2007-2013 bilakaera**




* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

**5.2.2.**

Oro har, pertsona esleipendunek uste dute esleipen-prozesuak prozesu garbiak eta gardenak direla eta 64 puntuko batez besteko adostasuna lortu da kasu honetan (0-100). Oso desberdinak dira emaitza hori eta Etxebiden etxebizitza babestuaren eskatzaile diren biztanleen artean lortutakoa. Azken horien artean, 43 puntuko balorazioa lortu da gardentasunari buruz galdetzean.

5.3. taula Esleipen-prozesuak nahikoa argiak eta gardenak direlarekiko adostasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| 0-100 indizea | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Erabat ados | 15,8 | 20,7 | 16,9 |
| Nahiko ados | 56,1 | 55,2 | 55,9 |
| Desadostasuna | 17,9 | 10,7 | 16,4 |
| Desadostasun osoa | 4,8 | 1,9 | 4,2 |
| Ed/Ee | 5,4 | 11,5 | 6,7 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazio (0-100 indizea)** | **62,6** | **69,0** | **63,9** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

2013an ere alokairuko etxebizitza bat eskuratu duten pertsonek iritzi positiboagoa dute (69 puntuko batez bestekoa), erosketa-erregimeneko etxebizitza bat eskuratu dutenek emandako iritziarekin alderatuta (62 puntu). Bilakaerari erreparatuz, prozesuak nahikoa argiak eta gardenak ez direla uste duten biztanle esleipendunen kopuruak behera egin du 2007-2013 aldian.

5.3. grafikoa Esleipen-prozesuak nahikoa argiak eta gardenak direlarekiko adostasuna







* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).
Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

### 5.2.3. Esleipen-prozesuaren hainbat alderdiekiko asetasuna

Inkestaren bitartez baiezta daitekeen moduan, biztanle esleipendunen iritzia positiboa da hainbat alderdiri buruz galdetzean: esleitutako etxebizitzari buruz jasotako informazioa (68,5 puntu batez beste), langileen aldetik jasotako arreta (70 puntu) eta esleipenaren unean eskatzen diren izapideak eta dokumentazioa (71 puntu). Edozein moduan, batez bestekoak zerbait gora egiten du emate-epea baloratzeko eskatzen zaienean (65 puntu).

5.4. taula Esleipen-prozesuaren hainbat alderdiekiko asetasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| Batez besteko asetasuna (0-100 indizea) | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Esleitutako etxebizitzari buruz jasotako informazioa | 67,8 | 70,8 | 68,5 |
| Etxebizitzaren emate-epea | 63,3 | 72,0 | 65,1 |
| Langileen aldetik jasotako arreta | 68,7 | 74,2 | 69,9 |
| Egin beharreko izapideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa | 70,7 | 72,8 | 71,1 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Esleipen-prozesuari buruzko iritziak antzekoak dira pertsona esleipenduna bizi den lurralde historikoa kontuan hartzen bada. Eskuratzeko modalitatea kontuan hartuta, aztertutako lau itemen kasuan asetasun-maila altuagoak lortu dira alokairuko etxebizitza bat eskuratu duten biztanleen artean, erosketa-erregimeneko bat eskuratu dutenen artean baino. Puntuazio onenak emate-epeak eta langileen aldetik jasotako arretak jaso dituzte.

5.4. grafikoa Esleipen-prozesuaren hainbat alderdiekiko batez besteko asetasuna lurralde historikoaren eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

**Jasotako informazioa**




**Emate-epea**




**Jasotako arreta**




**Izapideak eta eskatutako dokumentazioa**




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

# 6. ETXEBIZITZA POLITIKA BALORATZEKO ADIERAZLEAK

6. kapituluan etxebizitza babestuaren biztanle eskatzaileek etxebizitza-politikari buruz dituzten iritzi nagusiak ikus daitezke. Alde batetik, etxebizitza-politikako ekimen garrantzitsuen balorazioa egin da, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak eta Udalek egiten duten lanaren iritzi orokorra jaso da eta etxebizitzak gaur egun duen egoera hobetzeko alderdi garrantzitsuenak nabarmendu dira.

## 6.1. Etxebizitza-politikaren neurri garrantzitsuen balorazioa

Alokairua sustatzeko neurriarekin hasita, etxebizitza baten esleipendun izan diren biztanleen zati handi batek etxebizitza babestu gehiena alokairuan eraikitzeko neurriarekin erabat ados edo nahiko ados daudela adierazi du eta 63ko puntuko batez bestekoa lortu da. Adostasun-maila altuagoa da alokairu babestuan bizi direnen artean (79 puntu), erosketakoekin alderatuta (% 58).

Etxebiden izena emanda dauden biztanleekin alderatuz, alokairuan eraikitzeko neurriarekiko adostasuna antzekoa da alokairuko etxebizitza bat behar dutela aitortu duten familien artean (82 puntu), eta behera egiten du erosketaren kasuan (55 puntu).

6.1. taula Etxebizitza babestu gehiena alokairuan eraikitzeko neurriarekiko adostasun-maila etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Erabat ados | 15,6 | 44,7 | 21,7 |
| Nahiko ados | 51,2 | 47,4 | 50,4 |
| Desadostasuna | 16,9 | 4,6 | 14,3 |
| Desadostasun handia | 10,7 | 1,6 | 8,8 |
| Ed/Ee | 5,6 | 1,7 | 4,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko adostasuna (0-100 indizea)** | **58,6** | **79,2** | **63,1** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

6.1. grafikoa Etxebizitza babestu gehiena alokairuan eraikitzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Etxebizitza babestuaren prezioak diru-sarrera gehien dituzten eskatzaileentzako altuagoak izateko neurriari dagokionez, biztanle esleipendunen artean 60,5 puntuko batez besteko puntuazioa lortu da, eta emaitza hori Etxebiden erregistratutako eskatzaileen artean lortutakoa baino dezente baxuagoa da (71 puntu). Biztanleria esleipendunari dagokionez, alokairuan bizi direnen artean gehiago dira neurri horren alde agertu direnak (65 puntu), erosketarekin alderatuz (59 puntu).

6.2. taula Etxebizitza babestuen prezioak/alokairuak diru-sarreretara egokitzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Erabat ados | 23,8 | 32,4 | 25,7 |
| Nahiko ados | 29,6 | 27,7 | 29,2 |
| Desadostasuna | 35,3 | 31,5 | 34,5 |
| Desadostasun handia | 4,5 | 3,0 | 4,2 |
| Ed/Ee | 6,8 | 5,3 | 6,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko adostasuna (0-100 indizea)** | **59,3** | **64,9** | **60,5** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

6.2. grafikoa Etxebizitza babestuen prezioak/alokairuak diru-sarreretara egokitzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna lurralde historikoka etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Bestalde, biztanle esleipendun askok aldeko iritzia agertu dute etxebizitza babestuen errentariei alokairuko etxebizitza babestuak esleitzeko orduan diru-sarrerak kontuan hartzeko neurriari buruz galdetzean. Horrela, % 91k aldeko iritzia jaso dute eta % 4k kontrakoa. 77 puntukoa da batez besteko adostasuna, eta emaitza bera lortu da (77 puntu) alokairuko etxebizitzaren eskatzaile diren biztanleen artean.

6.3. taula Alokairuaren baldintzak diru-sarreren bilakaeraren arabera aldiro berrikusteko neurriarekiko batez besteko adostasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Erabat ados | 32,9 | 37,0 | 33,8 |
| Nahiko ados | 58,1 | 54,0 | 57,3 |
| Desadostasuna | 2,4 | 3,4 | 2,6 |
| Desadostasun handia | 1,0 | 2,4 | 1,3 |
| Ed/Ee | 5,5 | 3,0 | 5,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko adostasuna (0-100 indizea)** | **76,7** | **76,5** | **76,7** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

6.3. grafikoa Alokairuaren baldintzak diru-sarreren bilakaeraren arabera aldiro berrikusteko neurriarekiko batez besteko adostasun-maila lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Etxebizitza babestuaren ikuskapenei dagokienez, biztanle esleipendunen artean ia erabateko adostasuna lortu da, 94,5 puntu (0-100), eta ez da desberdintasunik ikusten etxebizitza babestua eskuratzeko erregimenaren arabera.

6.4. taula Etxebizitza babestuaren ikuskaritza egiteko neurriarekiko adostasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Erabat ados | 82,8 | 83,8 | 83,0 |
| Nahiko ados | 14,6 | 14,5 | 14,6 |
| Desadostasuna | 1,0 | 0,5 | 0,9 |
| Desadostasun handia | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Ed/Ee | 1,7 | 1,1 | 1,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko adostasuna (0-100 indizea)** | **94,4** | **94,7** | **94,5** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

6.4. grafikoa Etxebizitza babestuaren ikuskaritzak egiteko neurriarekiko batez besteko adostasuna lurralde historikoka eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gehiegizko Zorpetzeari Laguntzeko Zerbitzuari buruz galdetu zaie oraingo honetan. Profesional adituek (ekonomistak eta zinpeko kontu-zentsoreak) osatutako zerbitzu honek bitartekaritza-lanak egiten ditu finantza-erakundeekin ohiko bizilekua ordaintzen ez den kasuetan, eragindakoek duten zorra ahalik eta baldintzarik onenetan kitatzeko helburuarekin. Inkestaren arabera, oso gutxi ezagutzen dute aipatutako zerbitzua: galdetutako biztanleen % 1,4k esan dute ezagutzen dutela eta proportzio hori % 2,5ekoa da alokairuaren kasuan.

6.5. taula Familien Gehiegizko Zorpetzea Laguntzeko Zerbitzuari buruzko ezaguera etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Bai | 1,1 | 2,5 | 1,4 |
| Ez | 97,1 | 96,9 | 97,1 |
| Ed/Ee | 1,8 | 0,6 | 1,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

## 6.2. Eusko Jaurlaritzak eta Udalek etxebizitzaren alorrean burutzen duten lanaren balorazio orokorra

Amaitzeko, pertsona esleipendunei eskatu zaie Eusko Jaurlaritzak eta Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lana baloratzeko.

Eusko Jaurlaritzak egiten duen lanaren balorazioari dagokionez, etxebizitza-eskatzaileek egindakoa baino askoz ere hobea dela azpimarratu behar da (61 puntu lehenengoen kasuan eta 46 bigarrenen kasuan). Biztanle esleipendunen artean ere desberdintasunak ikus daitezke. Horrela, alokairuko etxebizitza bat eskuratu duten pertsonek 69 puntuko batez besteko balorazioa egin dute Eusko Jaurlaritzari buruz, baina batez besteko hori 10 portzentaje-puntu baxuagoa da (59 puntu) etxebizitza babestu bat erosi duten familien artean. Antzeko iritziak jaso dira lurralde historikoaren arabera.

6.6. taula Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean burutzen duen lanaren balorazio orokorra, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Oso ondo ari da lanean | 2,1 | 17,0 | 5,2 |
| Nahiko ondo ari da lanean | 39,3 | 42,6 | 40,0 |
| Erdipurdi ari da lanean | 37,7 | 24,4 | 34,9 |
| Nahiko gaizki ari da lanean | 6,2 | 7,1 | 6,4 |
| Oso gaizki ari da lanean | 2,6 | 0,0 | 2,0 |
| Ez dut iritzirik | 12,2 | 8,9 | 11,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazioa (0-100 indizea)** | **59,2** | **69,0** | **61,3** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Bilakaerari erreparatuz, murrizten ari da biztanle esleipendunek Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egiten duen lanaren gainean egindako balorazioa: 65 puntu lortu ziren eta 61 puntu lortu dira aurtengoan.

6.5. grafikoa Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean garatzen dituen jardueren inguruan biztanle esleipendunek egindako batez besteko balorazioa

**Batez besteko asetasuna** | **2007-2013 bilakaera**




* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

EAEko etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunen ustez, Eusko Jaurlaritzak bitartekaritza-lanak indartu behar ditu kaleratzeak ekiditeko. % 38k aipatu dute behar hori. Garrantziaren arabera daude ondoren: etxebizitza finantzatzeko laguntzak (% 30), etxebizitza babestuak baremazioaren arabera esleitzea (% 26), merkatu librean arrazoizko alokairuak sustatzea (% 25) eta hutsik dauden etxebizitzak zigortzea (% 24). Gainerako neurriak gutxiagotan aipatu dira.

6.6. grafikoa Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren egoera hobetzeko lehenetsi beharreko alderdiak




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

6.7. taula Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren egoera hobetzeko lehenetsi beharreko alderdiak, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | **Erosketa** | **Alokairua** | **Guztira** |
|---|---|---|---|
| Merkatu librean arrazoizko alokairuak sustatzea | 23,9 | 28,5 | 24,9 |
| BOEen ikuskaritzen maiztasuna areagotzea | 19,0 | 18,0 | 18,7 |
| Etxebizitza hutsak zigortzea | 24,9 | 21,1 | 24,1 |
| BOEen eraikuntza areagotzea | 8,2 | 7,9 | 8,1 |
| BOEak baremazio bidez esleitzea, behar handien duten taldeei laguntzeko | 23,1 | 37,5 | 26,1 |
| Birgaitze-politika bat eta auzoak berritzeko politika bat zuzentzea | 5,0 | 5,0 | 5,0 |
| Hipoteka-kaleratzeak gutxitzeko bitartekaritza-lanak egitea | 38,6 | 37,2 | 38,3 |
| Etxebizitza finantzatzeko laguntzak ugaritzea | 32,8 | 17,1 | 29,6 |
| Besteak. | 15,3 | 22,5 | 16,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Bestalde, esleipendunek ondo baloratu dute, halaber, Udalen lana. Horrela, 2013an 60 puntuko batez bestekoa lortu da, eta balorazioak hobera egin du etengabe 2007tik (54 puntu).

Alokairuko etxebizitzen biztanle esleipendunek egindako balorazioa (68 puntu) etxebizitza babestua erosi dutenek egindakoa (59 puntu) baino hobea izan da.

6.8. taula Udalek etxebizitzaren alorrean burutzen duen lanaren balorazio orokorra, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

| | Erosketa | Alokairua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Oso ondo ari da lanean | 2,0 | 14,2 | 4,5 |
| Nahiko ondo ari da lanean | 36,7 | 32,9 | 35,9 |
| Erdipurdi ari da lanean | 30,9 | 18,7 | 28,4 |
| Nahiko gaizki ari da lanean | 6,4 | 8,5 | 6,8 |
| Oso gaizki ari da lanean | 3,5 | 0,0 | 2,8 |
| Ez dut iritzirik | 20,5 | 25,7 | 21,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazioa (0-100 indizea)** | **58,6** | **67,8** | **60,4** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

6.7. grafikoa Udalek etxebizitzaren alorrean garatzen dituen jardueren inguruan biztanle esleipendunek egindako batez besteko balorazioa

**Batez besteko asetasuna**




**2007-2013 bilakaera**




* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).
Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

# 7. ADIERAZLEEN ANALISIA GENEROAREN IKUSPEGITIK

Kapitulu honetan eskaintzen zaigu EAEn etxebizitza baten esleipendun izan diren biztanleen datu, balorazio eta iritzi nagusien deskribapena eta informazio guztia sexuaren arabera bereizita jaso da.

Zehazkiago, inkesta honetan parte hartu duten biztanleen % 52,5 emakumezkoak ziren eta % 47,5 gizonezkoak eta oro har antzeko emaitzak lortu direla aipatu behar da.

7.1. grafikoa Inkestan parte hartu duten etxebizitzaren pertsona esleipendunak sexuaren arabera, 2013




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebiden izena emandako biztanleen inkesta, 2013.

## 7.1. Biztanle esleipendunen karakterizazioa

Biztanle esleipendunei egindako inkestaren arabera, antzeko ezaugarri soziodemografikoak dituzte etxebizitza babestu bat eskuratu duten emakumezkoek eta gizonezkoek. Jarraian, bi taldeen artean antzemandako desberdintasun txiki batzuk aipatuko dira:

- Etxebizitza babestuaren titular diren gizonezkoen artean gehiago dira enplegu finkoa dutenak edo beren kontura lan egiten dutenak, eta emakumezkoen artean, ordea, gehiago dira egoera ezegonkorrean daudenak. emakumeen % 19 daude langabezian eta gizonen artean % 18.
- Gizonezkoen artean gehiago dira ezkongabeak (% 70), emakumezkoen artean baino (% 62).
- Bi kidek osatutako familiak dira gehiengoa emakumeen artean (% 45), eta gizonen artean kide bakar batek osatutako familiak % 43. Hala ere, familiaren batez besteko tamaina antzekoa da bi kasuetan: 2,1 kide emakumezkoen kasuan eta 2 kide gizonezkoen kasuan.
- Antzekoak dira, halaber, emakumezkoek eta gizonezkoek aitortutako hileko diru-sarrerak. 1.548 euro emakumezkoen kasuan eta 1.534 euro gizonezkoen kasuan.
- Gizonezko titularren % 14k eta emakumezko titularren % 12k aitortu dute gaur egun zailtasunak dituztela etxebizitza babestuaren ordainketei aurre egiteko. Eta emakumezkoen % 5ek eta gizonezkoen % 3k esan dute diru-laguntza publikoak jasotzen dituztela.
- Etxebizitza erosteko orduan, emakumezkoen % 23k eta gizonezkoen % 21ek adierazi dute finantzaketa lortzeko zailtasunak eduki zituztela.

7.1. taula  Biztanle esleipendunen ezaugarri sozioekonomikoak sexuaren arabera

| | Emakumezkoa | Gizonezkoa |
|---|---|---|
| **Adina** | | |
| 24 urte bitartean | 26,1 | 18,9 |
| 25-34 urte | 32,6 | 37,3 |
| 35-44 urte | 28,2 | 34,4 |
| 45-64 urte | 10,3 | 8,2 |
| 65 urte eta gehiago | 2,8 | 1,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko adina (urteak)** | **35,6** | **35,2** |
| **Lan-egoera** | | |
| Lanean/bere kontura | 3,4 | 9,4 |
| Lanean/kontratu finkoa | 50,9 | 62,7 |
| Lanean/aldi baterako kontratua | 19,4 | 7,3 |
| Langabezian | 18,6 | 17,3 |
| Beste egoera bat | 7,7 | 3,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Egoera zibila** | | |
| Ezkongabea | 62,3 | 70,3 |
| Ezkondua | 23,1 | 20,3 |
| Izatezko bikote erregistratua | 8,5 | 5,5 |
| Banandua/Dibortziatua | 3,7 | 3,7 |
| Alarguna | 2,4 | 0,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Familia-unitatearen tamaina** | | |
| Pertsona bakarra | 29,9 | 42,7 |
| Bi pertsona | 45,2 | 33,8 |
| Hiru pertsona | 12,6 | 13,9 |
| Lau pertsona | 7,7 | 7,2 |
| Bost pertsona edo gehiago | 4,6 | 2,4 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Familiaren batez besteko tamaina (kop.)** | **2,1** | **2,0** |
| **Hileko batez besteko diru-sarrerak (eurotan)** | **1.548,7** | **1.533,7** |
| **Etxebizitza babestua ordaintzeko zailtasunak gaur egun (baiezkoen %)** | 11,6 | 13,6 |
| **Ordainketei aurre egiteko diru-laguntzak jasotzen ditu (baiezkoen %)** | 4,8 | 3,4 |
| **Finantzaketa lortzeko zailtasunak etxebizitza erosteko* (baiezkoen %)** | 22,9 | 21,1 |

* Erosketa-erregimeneko etxebizitza babestu bat eskuratu duten pertsonek bakarrik erantzun dute.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

7.2. grafikoa Biztanle esleipendunen ezaugarri sozioekonomiko nagusiak sexuaren arabera




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Inkestak berriro baieztatu du ez dagoela desberdintasun esanguratsurik esleitutako etxebizitzen artean titularra emakumezkoa edo gizonezkoa izan. Ondorengo taulan adierazi dira emaitzak.

7.2. taula Esleitutako etxebizitzen bizitegi-ezaugarriak sexuaren arabera

| | **Emakumezkoa** | **Gizonezkoa** |
|---|---|---|
| | | |
| < 40 $m^2$ | 0,1 | 0,4 |
| 41 eta 60 $m^2$ bitartean | 9,5 | 12,0 |
| 61 eta 75 $m^2$ bitartean | 32,0 | 32,9 |
| 76 eta 90 $m^2$ bitartean | 54,3 | 52,7 |
| 91 eta 120 $m^2$ bitartean | 0,9 | 0,6 |
| Ed/Ee | 3,2 | 1,4 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko azalera** | **75,0** | **73,9** |
| **Logela kopurua** | | |
| 1 logela | 3,9 | 6,5 |
| 2 logela | 36,1 | 34,6 |
| 3 logela | 59,4 | 58,5 |
| 3 logela baino gehiago | 0,5 | 0,4 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Etxebizitzaren ekipamendua (baiezkoen %)** | | |
| Sukalde ekipatua | 36,0 | 40,4 |
| Garajea | 98,5 | 98,5 |
| Trastelekua | 96,8 | 95,9 |
| Zerbitzu komunak | 81,5 | 79,5 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

## 7.2. Etxebizitzaren beharrari emandako erantzuna eta etxebizitzarekiko asetasuna

Esleitutako etxebizitzaren bitartez erantzundako beharrari erreparatuz, etxebizitza babestuaren titular diren gizonezkoen % 60k eta emakumezkoen % 59k euren lehen etxebizitza eskuratu dute.

Kasuen gehiengoak, emakumezkoen % 87k eta gizonezkoen % 88k, bizi diren etxebizitza babestuak epe ertainera (5-10 urte) dituzten beharrei erantzuten diela uste dute Etxebizitza aldatzeko beharra aitortu dute titularra emakumezko bat den familien % 10ek eta portzentajea % 8koa da titularra gizonezkoa denean.

Lehen etxebizitza aldatzeko beharrari dagokionez, etxebizitza babestua trukatzeko poltsa emakumezkoen % 51k ezagutzen dute eta % 37k ezagutzen dute gizonezkoen artean.

7.3. taula Beharraren estalduraren adierazleak sexuaren arabera

| | Emakumezkoa | Gizonezkoa |
|---|---|---|
| **Familia-unitatearen lehen etxebizitza da (baiezkoen %)** | 52,0 | 59,6 |
| **Esleitutako etxebizitzak epe ertainera etxebizitza-beharrari erantzuten dio (baiezkoen %)** | | |
| Bai | 87,3 | 88,4 |
| Ez | 9,9 | 8,4 |
| Ed/Ee | 2,8 | 3,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Erosketaren kasuan BPE trukatzeko poltsaren ezaguera** | | |
| Bai | 16,02 | 15,0 |
| Bai, entzun dut berari buruz hitz egiten | 35,2 | 32,0 |
| Ez | 47,6 | 51,9 |
| Ed/Ee | 1,2 | 1,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Emakumezko eta gizonezko gehienek adierazi dutenez, oso asetuta edo nahiko asetuta daude esleitutako etxebizitzarekin eta 76 eta 74 puntuko batez bestekoak lortu dira, hurrenez hurren. Emakumezko eta gizonezko gehienek esan dutenez, nahiko ona da esleitutako etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioa: 68,5 puntu emakumezkoen artean eta 68 puntu gizonezkoen artean batez beste.

7.4. taula Esleitutako etxebizitzarekiko asetasun-maila sexuaren arabera

| | Emakumezkoa | Gizonezkoa |
|---|---|---|
| Oso pozik | 36,4 | 31,0 |
| Nahiko pozik | 55,6 | 61,2 |
| Ez oso pozik | 5,8 | 6,8 |
| Poztasunik bat ere ez | 1,4 | 0,7 |
| Ed/Ee | 0,8 | 0,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100** | **76,0** | **74,3** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

7.5. taula Etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioa sexuaren arabera

| | Emakumezkoa | Gizonezkoa |
|---|---|---|
| Oso ona | 22,0 | 20,1 |
| Nahiko ona | 64,0 | 64,6 |
| Nahiko txarra | 10,5 | 11,4 |
| Oso txarra | 3,0 | 2,8 |
| Ed/Ee | 0,6 | 1,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100** | **68,5** | **67,8** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Alokairuko etxebizitza babestu bat eskuratu duten kasuei dagokienez, alokairuarekiko asetasuna pixka bat altuagoa da emakumezkoen artean (77 puntu), gizonezkoekin alderatuta (74,5 puntu). Bestalde, emakumezkoen artean interesa altuagoa da alokairuko etxebizitza bat erosteko aukerari buruz galdetzean: 40 puntu eta 35 puntu, hurrenez hurren.

7.6. taula Erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzaren eta alokairuan esleitutako etxebizitzaren balorazioa sexuaren arabera

| Alokairuan esleitutako etxebizitzaren balorazioa | Emakumezkoa | Gizonezkoa |
|---|---|---|
| Alokairuko etxebizitzarekiko batez besteko asetasuna (0-100 indizea) | 76,6 | 74,5 |
| Alokairuko etxebizitzaren erosketarekiko batez besteko interesa (0-100 indizea) | 39,6 | 34,7 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Etxebizitzaren alderdi bakoitzak lortutako asetasun-mailak zehaztasun handiagoarekin aztertzean ikusten denez, emakumezko esleipendunen artean gizonezkoen artean baino iritzi positiboagoak lortu dira ia item guztietan.

7.7. taula Etxebizitzaren hainbat alderdiren balorazioa sexuaren arabera

| Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100 | Emakumezkoa | Gizonezkoa |
|---|---|---|
| **Tamaina eta banaketa** | | |
| Etxebizitzaren neurria | 78,6 | 78,0 |
| Logela kopurua | 76,1 | 78,0 |
| Etxebizitzaren banaketa | 77,5 | 75,0 |
| Garajearen tamaina | 75,5 | 71,8 |
| Trastelekuaren tamaina | 74,9 | 74,5 |
| **Batez besteko asetasuna** | **76,5** | **75,4** |
| **Kalitatea eta ekipamendua** | | |
| Akaberaren kalitatea | 58,0 | 56,1 |
| Isolamendua (termikoa, akustikoa) | 55,3 | 51,9 |
| Ekipamendua (sukaldea/komuna) | 54,0 | 53,1 |
| **Batez besteko asetasuna** | **55,8** | **53,7** |
| **Eraikina** | | |
| Kanpoko itxura | 67,0 | 68,3 |
| Sotoa, eskailerak | 69,5 | 66,7 |
| Irisgarritasuna | 76,9 | 74,4 |
| Etxebizitzak eraikinean duen kokapena | 75,5 | 73,9 |
| **Batez besteko asetasuna** | **72,2** | **70,8** |
| **Ingurua** | | |
| Kokapena (hirigunetik gertu/urrun) | 70,7 | 71,2 |
| Inguruneko bizi-kalitatea | 66,0 | 66,3 |
| Elkarbizitza auzokideekin | 75,4 | 73,0 |
| **Batez besteko asetasuna** | **70,7** | **70,2** |

* Gorriz adierazi dira okerren baloratu diren alderdiak (60 puntutik behera).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Esleitutako etxebizitza babestu baten titular diren emakumezkoen % 54k eta gizonezkoen % 49k aitortu dute etxebizitzan arazo edo gorabehera bat eduki dutela. Arazoa konpontzeko emakumezkoen % 95 sustatzailearekin harremanetan jarri ziren eta portzentaje hori % 93koa da gizonezkoen artean.

Etxebizitzan arazo bat eduki duten gizonezkoen % 64k esan dute ez dela arazoa konpondu eta portzentajea % 58koa da emakumezkoen artean. Jasotako arreta eta erantzunaren eraginkortasuna eta azkartasuna okerrago baloratu dira gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, eta horren arrazoia izan daiteke arazoa konpondu ez izana.

7.8. taula Etxebizitzako arazoak eta gorabeherak identifikatzea sexuaren arabera

| bertikalaren % | Emakumezkoa | Gizonezkoa |
|---|---|---|
| **Gertaera negatiboak (baiezkoen %)** | **53,7** | **48,9** |
| **Gorabehera edo arazo mota** | | |
| Elementu propioak | 46,1 | 54,1 |
| Elementu komunak | 26,7 | 19,2 |
| Biak | 27,2 | 26,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Arazoa konpontzeko kontaktua** | | |
| Harremanetan jarri nintzen eta arazoa konpondu zuten | 37,0 | 28,9 |
| Harremanetan jarri nintzen baina EZ zuten arazoa konpondu | 58,0 | 64,4 |
| Ez nintzen harremanetan jarri. | 4,9 | 6,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Jasotako arretaren batez besteko balorazioa* (0-100 indizea)** | | |
| Tratua-adeitasuna | 57,7 | 54,9 |
| Erantzunaren eraginkortasuna | 33,8 | 26,1 |
| Erantzuteko azkartasuna | 27,0 | 22,5 |

(*):

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

## 7.3. Etxebideren eta esleipen-prozesuaren balorazioa

Etxebidek jasotako balorazio orokorra oso antzekoa da gizonezkoen eta emakumezkoen artean eta gehiengoak egin du zerbitzuaren balorazio ona. Batez besteko puntuazioa 68 puntukoa da, gizonezkoen artean zein emakumezkoen artean.

7.9. taula  Etxebideren balorazio orokorra sexuaren arabera

| | Emakumezkoa | Gizonezkoa |
|---|---|---|
| Oso ona | 7,1 | 6,9 |
| Ona | 55,9 | 61,1 |
| Tartekoa | 24,0 | 21,1 |
| Txarra | 3,0 | 2,3 |
| Oso txarra | 0,6 | 2,9 |
| Ed/Ee | 9,3 | 5,7 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** |
| **Batez besteko balorazio (0-100 indizea)** | **68,1** | **67,7** |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Esleipen-prozesuak batez besteko puntuazio hobea lortu du emakumezkoen artean (72 puntu) gizonezkoen artean baino (68 puntu). Eta hobeto baloratu da emakumezkoen artean, halaber, esleipen-prozesuen gardentasuna eta garbitasuna (65 puntu emakumezkoen artean eta 63 puntu gizonezkoen artean). Hobeto baloratu dute emakumezkoek esleitutako etxebizitzari buruz jasotako informazioa, emate-epea edo izapideak eta/edo eskatutako dokumentazioa.

7.10. taula  Esleipen-prozesuaren balorazioa sexuaren arabera

| | Emakumezkoa | Gizonezkoa |
|---|---|---|
| **Esleipen-prozesuarekiko batez besteko asetasuna (0-100 indizea)** | **71,8** | **68,4** |
| | **65,0** | **62,7** |
| **Etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko batez besteko asetasuna (0-100 indizea)** | | |
| Esleitutako etxebizitzari buruz jasotako informazioa | 69,8 | 67,0 |
| Etxebizitzaren emate-epea | 67,1 | 63,0 |
| Langileen aldetik jasotako arreta | 71,6 | 68,0 |
| Egin beharreko izapideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa | 72,2 | 70,0 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

## 7.4. Etxebizitza-politikaren balorazioa

Amaitzeko, emakumezkoek eta gizonezkoek etxebizitza-politikari buruz emandako iritziak antzekoak direla azpimarratu behar da. Jarraian, bi taldeen artean antzemandako desberdintasun txiki batzuk aipatuko dira:

- Gizonezkoen artean batez besteko adostasuna altuagoa da etxebizitza babestu gehiena alokairuan eraikitzeko neurriari eta etxebizitza babestuaren prezioa diru-sarrera altueneko eskatzaileentzako garestiagoak izateko neurriari buruz galdetzean.
- Eta adostasun altua lortu da (antzekoa bi taldeetan) alokairuaren errenta aldiro diru-sarreren arabera berrikusteko neurriaren aurrean.
- Halaber, oso zabala da etxebizitza babestuaren ikuskapenen aurrean erakutsitako adostasuna.

7.11. taula Etxebizitza-politikaren neurri garrantzitsuen balorazioa sexuaren arabera

| **Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)** | **Emakumezkoa** | **Gizonezkoa** |
|---|---|---|
| Etxebizitza babestu gehiena alokairuan eraikitzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna | 62,2 | 64,2 |
| Diru-sarrera altueneko eskatzaileen kasuan prezio altuagoko etxebizitza babestuak esleitzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna | 59,3 | 61,9 |
| Alokairuaren baldintzak diru-sarreren bilakaeraren arabera aldiro berrikusteko neurriarekiko batez besteko adostasuna | 77,3 | 76,0 |
| Sailak irregulartasunak antzemateko egiten dituen ikuskaritzekiko adostasuna | 94,3 | 94,6 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

Eta, amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egiten duen lana 62 punturekin baloratu da emakumezkoen artean eta 60 punturekin, berriz, gizonezko esleipendunen artean. Eta Udalek egiten duten lana 62 punturekin baloratu dute emakumezkoek eta 58 punturekin egin dute gizonezkoek.

Azkenik, emakumezkoek eta gizonezkoek hipoteka-kaleratzeak murrizteko bitartekaritza-lan handiagoa egin behar dela azpimarratu dute: % 42 emakumezkoen artean eta % 34 gizonezkoen artean. Bigarrenik, emakumezkoek etxebizitza finantzatzeko laguntza gehiago eman beharko liratekeela uste dute (% 30), eta gizonezkoek, berriz, garrantzi handiagoa ematen diote etxebizitza hutsak zigortzeko neurriari (% 30).

7.12. taula Eusko Jaurlaritzak eta Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanaren balorazio orokorra eta etxebizitzaren egoera hobetzeko heldu beharreko alderdiak sexuaren arabera

| **Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)** | **Emakumezkoa** | **Gizonezkoa** |
|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritzaren jardueraren batez besteko balorazioa | 62,4 | 60,0 |
| Udalen jardueraren batez besteko balorazioa | 62,3 | 58,4 |
| **Heldu beharreko alderdiak (baiezkoen %)** | **Emakumezkoa** | **Gizonezkoa** |
| Merkatu librean arrazoizko alokairuak sustatzea | 27,1 | 22,3 |
| BOEen ikuskaritzen maiztasuna areagotzea | 20,2 | 17,1 |
| Etxebizitza hutsak zigortzea | 18,7 | 30,1 |
| BOEen eraikuntza areagotzea | 7,6 | 8,7 |
| BOEak baremazio bidez esleitzea, behar handien duten taldeei laguntzeko | 27,7 | 24,3 |
| Birgaitze-politika bat eta auzoak berritzeko politika bat zuzentzea | 4,8 | 5,2 |
| Hipoteka-kaleratzeak gutxitzeko bitartekaritza-lanak egitea | 42,4 | 33,9 |
| Etxebizitza finantzatzeko laguntzak ugaritzea | 30,2 | 28,9 |
| Besteak. | 14,5 | 19,2 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

# 8. ONDORIOAK ESLEIPEN PROZESUAREN ETA ESLEITUTAKO ETXEBIZITZEN EBALUAZIOA PERTSONA ESLEIPENDUNEN IKUSPEGITIK

EAEn etxebizitza babestuaren parke zabala dago. Horrela, EAEn Eraikitzen Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzen Estatistikaren arabera, 2009-2012 aldian 18.971 etxebizitza babestu eraiki dira. Hain zuzen ere, talde horrengana zuzendu da EAEko biztanle esleipendunen Inkesta 2013an, eta ondorengo lerroetan emaitza garrantzitsuenak adierazi dira.

## *a) Biztanle esleipendunen profila*

- EAEko etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunek profil hau dute: batez beste 35 urteko pertsona, ezkongabea, lanean eta 2 kidek osatutako sendigune batekoa eta 1.500 euroko hileko batez besteko diru-sarrerak dituena.
- Atzerritarren artean gehiago dira alokairua hautatzen dutenak (% 71) eta atzerritarren artetik % 29k bakarrik baieztatu dute erosketa-erregimeneko etxebizitza bat eskuratu dutela. Aitzitik, biztanle espainol gehienek erosketa-erregimeneko etxebizitzaren alde egiten dute (% 85, eta % 15 dira alokairuan bizi direnen artean).
- Alokairuko etxebizitza babestu batean bizi diren biztanleen profila eta erosketa-erregimeneko batean bizi direnena oso desberdinak dira. Alokairuko etxebizitza babestuaren titularren batez besteko adina (40 urte) altuagoa da, gehiago dira ezkonduta dauden pertsonak eta sendigunearen batez besteko tamaina handiagoa da (2,4 kide familiako). Langabezian daude alokairuko kasuen % 35 eta hileko diru-sarrerak (1.105 euro) erosketa-erregimenean bizi diren sendiguneena baino (1.659 euro) dezente baxuagoa dira. Alokairu babestuan bizi diren familien % 32k adierazi dute etxebizitza ordaintzeko zailtasunak dituztela. Zentzu horretan, % 17k esan dute diru-laguntza publikoak jasotzen dituztela etxebizitza ordaintzeko eta oso familia gutxik agertu du interesa alokairuan esleitutako etxebizitza erosteagatik.
- Etxebizitza babestua erosi duten familien artetik % 22k esan dute zailtasunak eduki dituztela finantzaketa lortzeko, eta oso familia gutxik du interesa gaur egun esleitutako etxebizitzaren lurzoruaren azalera-eskubidea erosteagatik (guztizkoaren % 7).
- Desberdintasun garrantzitsuak ikus daitezke, halaber, biztanle esleipendunen profilaren eta Etxebiden etxebizitza babestuaren eskatzaile diren biztanleen profilaren artean. Familia esleipendunen titularren batez besteko adina baxuagoa da. Horrez gain, ezkongabe asko dago familia esleipendunen artean, biztanleria eskatzaileen artean baino dezente gehiago.

**8.1. taula Biztanleria esleipendunaren profila eta biztanleria eskatzailearen profila alderatzea**

| | Biztanleria esleipenduna | | | Biztanleria eskatzailea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Erosketa | Alokairua | Guztira | Erosketa | Alokairua | Guztira |
| Batez besteko adina (urteak) | 34,2 | 39,6 | 35,4 | 38,8 | 44,0 | 42,2 |
| Langabezia (%) | 13,4 | 34,7 | 18,0 | 11,4 | 29,6 | 23,4 |
| Ezkongabea (%) | 70,9 | 48,2 | 66,1 | 62,0 | 50,5 | 54,5 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

- Erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzak (76 m2) alokairuan eraikitakoak baino (67 m2) handiagoak dira eta bi tamainek gainditzen dituzte Etxebideko etxebizitza babestuaren eskatzaileek adierazitakoak.

**8.1. grafikoa Esleitutako etxebizitzen eta eskatutako etxebizitzen batez besteko tamaina edukitza-erregimenaren arabera**




Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

- EAEn esleitutako alokairuko etxebizitza gehienek dituzte 2 logela, garajea eta trastelekua, eraikinak zerbitzu komunak ditu eta sukaldea ekipatuta dute etxebizitzek. Erosketa-erregimeneko etxebizitzek 3 logela eduki ohi dituzte, baita garajea, trastelekua eta zerbitzu komunak ere, baina kasu gehienetan, sukaldea ekipatu gabe dutela ematen dira.

### *b) Etxebizitzaren beharrari emandako erantzuna eta etxebizitzarekiko asetasuna*

- Etxebizitza babestu bat erosi duten familien % 63ren kasuan esleitutako etxebizitza familiaren lehen etxebizitza da. Proportzio hori baxuagoa da alokairuaren kasuan (% 29), eta talde horretan erregistratu dira lehen etxebizitza ez dela aitortu dutenen proportzio altuenak (% 71).
- Familia esleipendunen % 88k uste dute euren etxebizitzak epe ertainera (5-10 urte) dituzten beharrak estaltzen dituela. % 9k esan dute epe ertainera beste etxebizitza bat beharko dutela, eta etorkizunean etxebizitza aldatzeko beharra adierazi dute alokairuan bizi direnen % 21ek.

- Esleitutako etxebizitzarekiko asetasun-maila altua da (75 puntu) eta oso positiboa da esleitutako etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioak lortutako balorazioa (68 puntu). Bi indizeak zerbait altuagoak dira erosketa-erregimeneko familien artean, alokairukoekin alderatuta.
- Hala ere, alokairuko etxebizitza batean bizi diren familiek iritzi hobea agertu dute alokairuko etxebizitza bat esleitu izanari buruz galdetzean, eta 2013an 76 puntura iritsi da balorazioa. Hain zuzen, aztertutako aldi osoko (2007-2013) batez bestekorik altuena da eta batez besteko asetasunak hobera egiten du adinarekin eta 82 puntura iristen da 65 urte edo gehiago dituzten pertsonen taldean.
- Tamaina, logela kopurua eta etxebizitzaren banaketa dira asetasun-maila altuena lortu duten alderdiak, Aitzitik, okerren baloratu diren itemak dira etxebizitzen ekipamendua, isolamendua (termikoa eta akustikoa) eta akaberaren kalitatea.
- Familien erdiak inguruk aitortu dute arazo edo gorabehera bat eduki dutela esleitutako etxebizitzan, eta batez ere leiho edo ateetan eta eraikinaren zoruan zein fatxadan izandako arazoak dira. Kasu gehienetan, sustatzailearekin harremanetan jarri ziren gorabehera konpontzeko, baina % 61ek aitortu dute ez zutela arazoa behar bezala konpondu. Hain zuzen, jasotako arreta ondo baloratu bada ere, erantzunaren eraginkortasunak eta azkartasunak kontrako emaitzak lortu ditu.

### *c) Etxebideren, esleipen-prozesuaren eta etxebizitza-politikaren balorazio orokorra*

- Biztanle esleipendunek Etxebide-Etxebizitza Euskal Zerbitzuaren inguruan erakutsitako asetasuna ona da, 68 puntuko batez bestekoarekin (0-100), eta etxebizitza babestuaren eskatzaileek erakutsitakoa (56 puntu) baino dezente altuagoa da.
- Iritzi positiboak jaso dira esleipen-prozesua baloratzean. Horrela, 69 puntuko batez besteko asetasuna lortu da etxebizitza erosi duten familien artean eta 73 puntukoa da asetasuna alokairukoen artean. Esleipendun gehienek uste dute prozesuak garbiak eta gardenak direla. Etxebizitza babestuaren familia eskatzaileek kontrakoa uste dute.
- Etxebizitza babestu gehiena alokairuan eraikitzeko neurria ondo baloratu da etxebizitza babestuaren familia errentarien artean (79 puntu), baita Etxebiden etxebizitza babestuaren eskatzaile direnen artean ere (82 puntu).
- Etxebizitza babestuen prezioak/alokairuak diru-sarreren arabera egokitzeko neurriak adostasun-maila baxuagoak lortu ditu pertsona esleipendunen artean (60,5 puntu), Etxebiden erregistratuta daudenekin alderatuta (70,8 puntu).
- Alokairuaren baldintzak diru-sarreren bilakaeraren arabera egokitzeko neurriak adostasun zabala lortu du bai familia esleipendunen artean (76 puntu) bai eskatzaileen arten (71 puntu).
- Bestalde, biztanle esleipendunek balorazio positiboa egin dute Eusko Jaurlaritzak eta Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanari buruz galdetzean eta 61 puntuko eta 60 puntuko batez besteko puntuazioak lortu dira, hurrenez hurren. Bi indizeek nabarmenki gainditzen dituzte Etxebiden etxebizitzaren eskatzaile gisa izena emanda dauden biztanleen artean lortutakoak: 46 puntu Eusko Jaurlaritzak eta 45 puntu Udalek.

- Eta, amaitzeko, EAEko parke babestuan bizi diren familiek esan dute bitartekaritza-lanak indartu beharko liratekeela, kaleratzeak gutxitzeko, eta finantzaketarako laguntzak areagotu beharko liratekeela, gaur egungo etxebizitza-egoera hobetzeko.

8.2. taula Biztanleria esleipendunaren eta biztanleria eskatzailearen balorazioen alderatzea

| | Biztanleria esleipenduna | | | Biztanleria eskatzailea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Erosketa** | **Alokairua** | **Guztira** | **Erosketa** | **Alokairua** | **Guztira** |
| Etxebideren batez besteko balorazioa | 67,9 | 68,2 | 67,9 | 56,6 | 56,1 | 56,3 |
| Esleipenaren gardentasunarekiko batez besteko akordioa | 62,6 | 69,0 | 63,9 | 47,3 | 41,1 | 43,2 |
| Etxebizitza gehienak alokairuan eraikitzearekiko batez besteko adostasuna | 58,6 | 79,2 | 63,1 | 54,6 | 82,1 | 72,9 |
| Prezioak/alokairuak diru-sarreren arabera egokitzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna | 59,3 | 64,9 | 60,5 | 62,7 | 75,0 | 70,8 |
| Alokairuaren baldintzak aldiro berrikusteko neurriarekiko batez besteko adostasuna | 76,7 | 76,5 | 76,7 | 68,5 | 77,2 | 74,3 |
| Eusko Jaurlaritzaren batez besteko balorazioa | 59,2 | 69,0 | 61,3 | 48,3 | 47,7 | 46,0 |
| Udalen batez besteko balorazioa | 58,6 | 67,8 | 60,4 | 44,5 | 44,5 | 44,5 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen inkesta, 2013.

### d) *Adierazleak generoaren ikuspegitik*

- Inkestaren bitartez baiezta daiteke oso antzekok direla EAEn etxebizitza babestu bat eskuratu duten emakumezkoen eta gizonezkoen profilak. Ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten beharraren estaldurari buruz lortutako emaitzei dagokienez, ezta Etxebideri buruz, esleipen-prozesuari buruz edo Eusko Jaurlaritzak eta Udalek egiten duten lanari buruz lortutakoei dagokienez ere.

8.3. taula Etxebideren bitartez egiten den etxebizitza babestuaren esleipenari buruzko ebaluazioaren adierazleen laburpen-taula, 2007-2013

| | 2008 | 2009 | 2010 | 2012* | 2013 |
|---|---|---|---|---|---|
| ***BATEZ BESTEKO ASETASUNA BIZI DEN ETXEBIZITZAREKIKO (0-100 INDIZEA)*** | 77,3 | 75,4 | 68,8 | 74,6 | 75,2 |
| ***ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA BATEN ESLEIPENAREKIKO BATEZ BESTEKO ASETASUNA (0-100 INDIZEA)*** | 65,7 | 65,3 | 63,6 | 67,9 | 75,7 |
| ***ETXEBIZITZAREN KALITATEA-PREZIOA ERLAZIOAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)*** | 80,9 | 73,9 | 67,7 | 66,6 | 68,2 |
| ***ETXEBIZITZAN GERTAERA NEGATIBOAK EGOTEA (BAIEZKOEN %)*** | 66,9 | 63,6 | 65,0 | 47,3 | 51,4 |
| ***GORABEHERA KONPONTZEKO JASOTAKO TRATUA-ADEITASUNAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)*** | 55,5 | 49,3 | 56,4 | 40,9 | 56,4 |
| ***GORABEHERA KONPONTZEKO ERAGINKORTASUNAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)*** | 31,1 | 34,3 | 32.7 | 22,6 | 30,3 |
| ***GORABEHERA KONPONTZEKO AZKARTASUNAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)*** | 31,0 | 32,7 | 26,6 | 19,2 | 24,9 |
| ***ESLEIPEN-PROZESUAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)*** | 69,7 | 67,7 | 63,1 | 71,3 | 70,2 |
| ***ESLEIPEN-PROZESUEN GARDENTASUNAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)*** | 68,3 | 66,9 | 62,5 | 70,6 | 63,9 |
| ***ETXEBIDEREN BATEZ BESTEKO BALORAZIO OROKORRA (0-100 INDIZEA)*** | 67,0 | 67,2 | 68,6 | 67,5 | 67,9 |
| ***EUSKO JAURLARITZARI BURUZKO BALORAZIO OROKORRA (0-100 INDIZEA)*** | 65,1 | 63,7 | 64,0 | 61,4 | 61,3 |
| ***UDALEN BATEZ BESTEKO BALORAZIO OROKORRA (0-100 INDIZEA)*** | 58,4 | 57,6 | 57,6 | 59,3 | 60,4 |

* 2012an azken 5 urteetan esleipendun izan diren biztanleen emaitza barne hartu da (gainerako urteetan galdetutako antzeko taldea).

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza.

# 9. HOBETZEKO GOMENDIOAK

EAEn etxebizitza baten esleipendun diren biztanleei egindako inkestako emaitzak erreferentzia gisa hartuta, honako proposamen hauek egin dira etxebizitza babestuaren esleipena hobetzeko:

- Etxebizitza ordaintzeko zailtasun ekonomikoak dituzten biztanle esleipendunei laguntzea, batez ere alokairuan bizi diren familiei: % 35 langabezian daude eta % 32k aitortu dute zailtasunak dituztela ordainketei aurre egiteko. % 17k baieztatu dute diru-laguntza publikoak jasotzen dituztela etxebizitza ordaintzeko.
- Alokairuan esleitutako etxebizitza erosteko aukerak interes-maila positiboa lortu du Bizkaian eta gazteen artean. Biztanle esleipendunen % 41ek aukera horren gainean interesa dutela kalkulatzen da.
- Etxebizitza babestuen akaberaren eta ekipamenduaren kalitatea hobetzeko formulak aztertzea: puntuazio oso positiboak lortu dira esleitutako etxebizitzekiko asetasun-mailari eta aztertutako alderdi gehienei dagokienez. Asetasun-maila altuenak komun edo sukaldeko ekipamenduak, isolamendu termikoak eta akustikoak eta akaberaren kalitateak lortu dituzte.
- Etxebizitza esleituak emateko epeak hobetzea: ona da, oraindik ere, esleipen-prozesuarekiko asetasun-maila, baina, oraingoan ere, erosketa-erregimeneko etxebizitzen emate-epea da asetasun-maila baxuena lortu duen alderdia.
- Etxebizitza babestuen parkean sortutako arazoen arreta eta konponbidea hobetzea: EAEn etxebizitza babestu batean bizi diren familien erdiak inguruk adierazi dute arazoren bat eduki dutela esleitutako etxebizitzan. % 61ek aitortu dute sustatzailearekin harremanetan jarri zirela, baina ez zutela arazoa edo gorabehera konpondu, eta nahiz eta jasotako tratua eta adeitasuna positiboki baloratu, negatiboa da gorabeherari erantzuteko eraginkortasunaren eta azkartasunaren balorazioa.
- Erosketa-erregimeneko etxebizitza babestuak trukatzeko poltsaren ezaguera zabaltzea, epe ertainera beharra konpontzeko bide gisa. Erosketa-erregimeneko etxebizitza babestu bat duten familien % 42k ezagutzen dute ekimen hori.
- Bitartekaritza-lanak indartzea kaleratzeak gutxitzeko, finantzaketarako laguntzak areagotzea eta BOE baremazio bidez esleitzea dira gehien aipatu diren alderdiak etxebizitzaren esparruan gaur egun bizi den egoera hobetzeko.